

# Kontzeju

www.oiñaci.eus



Berba Oñaci



@BerbaOñaci



koletina



Oñaci Irratib

Oñatiko Udal aldizkaria | 2019ko maiatze | 283



DELIK



UDAL AURRENKONTUETAKO

# 500.000 €

zertan inbertitu herritarrek erabakiko dute, Udalak antolatu duen partaidetza prozesuaren bidez



# TXAKETUA

## Kale Zaharreko bihotzean

Taberna baino lehen harategia izan zen. Oñatiko Boxing Club-ak ere bertan eman zituen lehen urratsak, eta 'Cocherito de Bilbao' izeneko zezen-zale taldearen egoitza ere izan zen, besteak beste. Historia berezia du Txaketua tabernak, eta San Migel Txikiak ospatzen diren honetan, une egokia iruditu zaigu bertara hurbiltzeko.

Txaketua harategia izan zen taberna baino lehen. Ez dakigu zehazki noiz zabaldu zuten; 1862koa da aurkitu dugun aurreneko arrastoa. Udaleko artxibozain Izar Salaberriek eskuratu digun agiri batean ikus daiteke udalak Jose Ignacio Astiazaran kontratatzen duela harakin bezala.

Urrestillakoa zen jatorriz Astiazaran jauna. Ez dakigu noiz eta nola iritsi zen Oñatira, baina bertan ezkondu zen Isidora Biainekin eta bederatzi seme-alaba izan zituzten. Urrestillako kale-baserri baten izena omen zen Txaketua, baina ez dugu zehazterik izan.

Aipatzekoa da, Jose Ignacio-ren lau anai Ameriketara joan zirela Lehen Karlistaldiaren ondoren, eta hauetako bat, Francisco, Zumalakarregirekin batera borrokan ibilitakoa, ospe handiko militarra izatera iritsi zela Uruguayko gerra zibilean, Oriberen aldeko euskal bolondresen batailoian. *Chaketua* izenez ezagutzen zuten.

Baina Oñatira itzulita, esan dugu Jose Ignaciok bederatzi seme-alaba izan zituela, eta



Argk.: Jesus M<sup>a</sup> Arzuaga funtsa - Oñatiko Udal Artxiboa

San Migel Txiki jaietan jendetza agiri da Txaketua aurrealdean txirindularien zain. Tabernako fatxadan ikusten dira Aloña zineko pelikulen berri ematen zuen karteldegia.

Isidoro izeneko maiorazkoak jarraitu zuen harategiarekin. Beste seme batzuk Madrilerako joan ziren, eta beste batzuk Argentinara.

Isidorok biloina jotzen omen zuen parrokiako zeremonietan eta ohikoa omen zen Bujero tabernako tertulietan. Juan Zubiaren 'Memorias de aquel Oñati' liburuan irakur daiteke Isidorok harategian prestatutako kazuelatxo eramatzen zuela eta jende ugari batzen zela mahaiaren inguruan.

Ospe handiko harategia omen zen Txaketua, Zubiaren esanetan, eta, bitxia bada ere, Zaragozan omen zeukan bere bezerorik onenetakoa: Militarren Akademia. Hara bidaltzen omen zituen txahal-izterrak Brinkolatik, goizeko 10etako tren azkarrean.

## HARATEGIA ITXI ETA TABERNA ZABALDU

Isidoro birritan ezkondu zen. Sei seme-alaba izan zituen eta nagusienak, Bixentek, hartu zuen negozioaren ardura. Ez dakigu, zehazki, noiz utzi zion harategi izateari, baina 1928-rako taberna bezala agiri da. Gaur egungoa baino txikiagoa zen, erdia gutxi gora behera, eta oso polita omen zen, ezberdina, urdin-turkesa koloreko altzariz apaindua.

Urtebete lehenago, 1927an, Txantxiku Txoko elkartea eratu zen Txaketua tabernaren goiko soliaruan, eta Bixente *Txaketua* izan zen kontserjea.

Garai hartako oñatiar asko bezala, zezen-zale amorratuak ziren Txaketuatarrak, eta 'Cocherito de Bilbao' torero bilbotarraren izena zeraman kluba eratu zuen Bixentek. Tabernaren atzealdeko lokalean zeukan egoitza, eta bertan egon zen baita ere Oñatiko Boxing Club-a, Arantzazu Kaleko 'Etxe Aundira' aldatu aurretik



Marcelino, tabernako kafe-makina ondoan.



Jose de Azpiazuri egindako despedida Suitzara joan aurretik Txaketuako arkupetan



Marcelino 'Txaketua' zenbait lagunekin San Ferminetan.



Conchi Astiazaran tabernako zerbitzari batekin.

Bizitza handiko gunea zen Txaketua, bistan denez, baina gerra zibilarekin batera dena pikutara joan zen. Errepublikazaleak izaki, Bixentek eta bere anaiek alde egin behar izan zuten Oñatitik. Txaketua etxea konfiskatuta geratu zen eta taberna itxita. Isidoro eta Juli aita-alabak geratu ziren etxean, eta *Auxilio Social* delakoa ipini zuten behar gorrian zeuden familiei laguntzeko.

Gerra ostean, Bergarara ezkondu zen Bixente, eta haren anaia Marcelinok hartu zuen tabernaren ardura. UHP batailoian ibilitakoa, lau urte egon zen preso Puerto Santa Marian, eta 1941ean itzuli zen Oñatira. Bere emazte Maria Ituartek Frantziara emigratu zuen, eta alaba txikia galdu zuen han zegoela.

Taberna atenditzeaz gain, Txantxiku Txoko elkarteko atezain eta zerbitzari lanak ere egin zituen Marcelinok, Juli arreba-aren laguntzarekin, eta poliki poliki, lan asko eginda, aurrera atera zuten berriz ere taberna.

1944an berriro eta handitu egin zuten taberna, Txaketua etxe bietako beheko oinak bat eginda. Marcelino 1967an hil zen eta, ordutik aurrera Conchi alaba zaharrenak hartu zuen tabernaren ardura. 1969an tabernaren gaineko etxe osoa eraberritu zen, eta 1971n egin zen azken erreforma sakona tabernan.

Oso taberna popularra izan da beti Txaketua. Aldameneko plazatxoan, iturria eta akaziak zeuden garaian, (berdura plaza deitzen zitzaion), tratuak egiteko ohitura zegoen, eta gero, jakina, taberna legea egiteko ohitura zegoen. Oso bereziak izaten ziren baita ere San Migel Txiki egunez Txaketua aurrealdean musika bandak jotzen zituen erromeriak. "Jendeak oso ondo hartu gaitu beti, eta esker oneko hitzak baino ez ditugu" esan digu Kontxik. ■

# UDAL AURREKONTUETAKO 500.000 € zertan inbertituko diren herritarrek erabakiko dute

- » 500.000 euroak 2019 eta 2020ko aurrekontuetan banatuko dira, 250.000€ urteko
- » Maiatzaren 24rarte egin daitezke proposamenak, horretarako dauden kutxetan, webgunean edo batzarretan

Udalak partaidetza prozesua jarriko du abian, herritarrek erabaki dezaten zertan inbertituko diren Udal Aurrekontuetako 500.000 €, bi urtetan (2019 eta 2020) banatuta; 250.000 € urte bakoitzean. Udalbatza osatzen duten bi talde politikoen (EH Bildu eta EAJ/PNV) adostasuna du prozesuak, eta izaera loteslea edo erabakitzailea izango du; hau da, prozesuaren amaieran herritarrek hartzen dituzten erabakiak aurrera eramateko konpromisoa hartu dute alderdiek. Ildo horretan, herritarrez osatutako Berme Talde bat eratu da, prozesuaren gardentasuna kontrolatu eta erabaki guztiak zuzen eta inolako interes politikorik gabe hartzen direla bermatuko duena.

Prozesuak adostasun politikoa du eta bozketatik ateratzen den emaitza loteslea izango da

## 1. Fasea: PROPOSAMENAK EGIN (Maiatzak 7-24)

Lehen lana izango da oñatiarrok proposamenak egitea: gure egunerokoan ikusten ditugun beharrak proposamen bihurtuz, edo etorkizuneko Oñati nolakoa izatea nahiko genukeen irudikatuta.

Oñatiarrek gara gure herria hobekien ezagutzen dugunak, eta beraz, proposamen guztiak dira garrantzitsuak.

Nola egin zure proposamena?

- Herriguneko auzo ezberdinetan antolatutako bilera irekietan (datak egutegian ikusgai)
- Etxeetan jasotzen dugun triptikoa bete eta postontzietan utziz. Udal eraikin publikoetan (udaletxea, kultur etxea, gaztelekua, Pake Leku, kiroldegia eta gizarte zerbitzuak) aurkituko dituzu postontziak.
- Udaleko webgunean (oñati.eus/partaidetzazko aurrekontuak) eskuragarri dagoen formularioa betez.

Proposamenak egiteko, kontuan izan:

- Gutxienez 16 urte izan beharko ditu proposamena egiten duenak.
- Proposamenaren arrazoia azaltzea oso garrantzitsua da, denok hobe uler dezagun beharra zein den.
- Herritar bakoitzak nahi dituen proposamenak egin ahal izango ditu.
- Proposamena egiten duen pertsonaren kontakturako datuak uztea eskatzen da, egon daitezkeen gaizki-ulertuen aurrean argipenak egiteko.

Etor zaitez bilera irekietara eta azaldu gainerako herritarrei zure proposamena zein den. Jasotako proposamen guztiak maiatzaren 28an arratsaldeko 18:30tan aurkeztuko dira Gaztelekuan.



PROPOSAMENAK AURKEZTERA ANIMATZEN DITUGU HERRITARRAK

Aurkezpen ekitaldiko argazkia

Prozesua osoaren gardentasuna kontrolatuko duen herritarrez osatutako berme talde bat egongo da

## 2. Fasea: PROPOSAMENAK LEHENETSI (Ekainak 4-17)

Jaso diren proposamen guztiak 500.000 €-rekin garatzea ezinezkoa da. Hori dela eta, jaso diren proposamen guztien artean, herritarrek eman beharreko lehen urratsa Oñatik herri bezala dituen beharren inguruan hausnartzea da.

Beraz, momentu honetan herritarrek erabakiko dute, jasotako proposamen guztietatik zeintzuk egingo duten aurrera, eta zeintzuk geratuko diren prozesutik kanpo.

Nola? Nola erabaki zeintzuk duten lehentasuna?

Bi urratsetan egingo dugu:

- Lehenesteko irizpideak erabaki. Bertaratutako herritar guztien artean irizpideak zehaztuko ditugu (Maiatzak 28an).
- Proposamenak lehenesteko bilera irekiak. 3-4 bilera antolatuko dira proposamen guztiak baloratzeko (Ekaineko lehenengo bi asteetan).

Balorazio onena jasotzen duten proposamenek aurrera egingo dute; gainontzekoak prozesutik kanpo geratuko dira.

## 3. Fasea: PROPOSAMENAK BALORATU (Maiatza - iraila)

Herritarrek landutako proposamen guztiak Udalaren eskuetara pasako dira eta udaran zehar proposamen guztiak baloratuko dituzte.

- Proposamenen lehen berrikuspena: Udalaren eskumena diren gainbegiratzen da, baita Udalak dagoeneko proposamen hori egitea aurreikusia duen edota egina dagoen. Balorazio hau Udal ordezkari politikoen eskutik egiten da.

- Balorazio tekniko eta ekonomikoa: Udal eskumena diren proposamenen bideragarritasun teknikoa kalkulatzear gain, proposamen bakoitzaren aurreikuspen ekonomikoa egingo dute udal teknikariek.

Iraila amaieran, proposamen guztien balorazioak publiko egingo dira. Horrela, herritar bakoitzak bere proposamenaren balorazio politiko, tekniko zein ekonomikoa ikusi ahal izango du.

## 4. Fasea: BOZKETA (Urria)

Herritarrek egindako proposamen guztien artean, herritar bakoitzak 500.000 €-ak nora bideratu erabaki beharko du azken bozketa honetan.

30 proposamen inguru izango ditugu eskuartean eta horietatik gogokoena hautatu beharko ditu herritar bakoitzak.

Bozketan parte hartzeko hiru era egongo dira:

- Herriguneko auzo ezberdinetan antolatutako bilera irekietan. egingo
- Etxetan jasotzen dugun triptikoa bete eta postontzietan utziz.
- Udaleko webgunean ([www.oñati.eus/partaidetzazkoarekонтuak](http://www.oñati.eus/partaidetzazkoarekонтuak)).

Bozketa amaitu eta 3 eguneko epean udal taldeak emaitzak publiko egingo ditu.

Faseek aurrera egin ahala proposamen batzuk prozesutik kanpo geratuko diren arren, hauek aztertu edo eskumena dagokionari bideratzeko konpromisoa hartzen du udalak.



## HERRITARREN SAIOEN EGUTEGIA:

### PROPOSAMENAK EGITEKO SAIOAK:

-**Maiatzak 7** Gaztelekua (18:30)

-**Maiatzak 10** Eltzia (18:30)

-**Maiatzak 14** Gaztelekua (18:30)  
(Gazteen proposamenak bereziki jasotzeko saioa)

-**Maiatzak 17** Ludoteka (18:30)

-**Maiatzak 21** Gaztelekua (18:30)

(Emakumeen proposamenak bereziki jasotzeko saioa)

-**Maiatzak 21** Errekalde Herri Eskola (18:30)

### EGINDAKO PROPOSAMEN GUZTIEN AURKEZPENA:

-**Maiatzak 28**, Gaztelekuan (18:30)

### PROPOSAMENAK LEHENESTEKO SAIOAK:

-**Ekaina** hasieran hiru saio.

### PROPOSAMENEN BOZKETA:

-**Urria** zehar egingo da.



# ADMINISTRAZIOAREN modernizazioa helburu

## Herritarren Arretarako Zerbitzua abian jarri eta admininstrazio elektronikoa garatu nahi du udalak datorren urtera begira

Adiminstrazioa garai berrietara egokitu nahi du udalak. Teknologia berriak baliatuz, herritarren eta udalaren arteko harremanak arindu, erraztu eta azkartzea da helburua. Eta administrazioaren modernizatze prozesu hori burutzeko, *Otxandio&Team Consulting* aholkularitza enpresa kontratatu du. Asmoa da, datorren urte hasieran Herritarren Arretarako Zerbitzu integral eta modernoa abian jartzea. Roberto Otxandio eman dizkigu azalpenak.

Administrazioa modernizatu eta garai berrietara egokitu nahi du udalak. Nola egiten da hori? Trantsizio hori egiteko udalak egin behar duen aurreneko lana da etxea ordenatzea. Hau da, identifikatu egin behar dira udalak herritarrekiko dituen tramite eta prozedura guztiak, eta idatziz jaso. Prozedura Administratiboan Eskuliburua deitzen zaio horri, eta hori da abiapuntua.

Gero, prozedura guztiak katalogatu ondoren hasiko gara aztertzen zer egin dezakegun tramite edo prozedura horiek arrazionalizatzeko, arintzeko errazteko eta azkartzeko.

Momentuz, Prozeduren

“ ROBERTO OTXANDIO / Aholkularia

**Herritarren eta udalaren arteko harremanak arintzea eta azkartzea da helburua**



Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu Oñatin?

**ETXiAN**  
Oñatiko inmoiliaria berria

Tel.: 943 71 61 60  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)

Donostian etxea erosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

EtXian 



carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

Eskuliburua osatzen hasi gara, udaleko departamentu edo sail bakoitzak zein tramite eta nola eskaintzen dituen katalogatzen.

**Beste udaletxe batzuei ere lagundu diezu trantsizio hau egiten. Beraz, ereduak hor daude.**

Bai, guk ez dugu ezer berririk asmatuko. Aurretik beste udal batzuek egin dutena aztertu eta egokienak iruditzen zaizkigun praktika hartuko ditugu, Oñatiko errealitateara egokituz.

Baina prozesuak arrakasta izan dezan, oso inportantea da udaleko langileen inplikazioa. Kontua ez da kontsultore batek idaztea Oñatiko udalarentzako prozeduren eskuliburua; langileek sortu behar dute, eta beraiena bezala sentitu. Azken batean, udal langileek ezagutzen dute hemengo errealitatea, eta beraiek dakite inork baino hobeto, ze aukera dauden prozedurak optimizatzeko.

Nire lana da langile horiek seduzitzea, animatzea eta ikusaraztea era honetako prozesu batek onura asko dituela, bai herritarrentzat eta baita udal langileen barne-antolaketa eta funtzionamendurako ere.

**Modernizazio prozesu batek administrazio elektronikoa garatzea eskatzen du, ezta?**

Bai, duda barik. Helburua da udalarekiko tramite gehienak telematikoki ere egin ahal izatea, webgunearen bidez, udaletxera joan beharrik izan gabe.

Helburua da, azken batean,



Arlo ezberdinetako udal teknikariak Otxandioren azalpenak entzuten

herritarrentzako arreta zerbitzua hobetzea, zerbitzu integrala eskaintzea, eskura ditugun bost kanalak erabiliz: presentziala, telefonoa, posta, telematika eta sare sozialak.

Ze oztopo dago gaur egun, adibidez, agiri bat telefonoz edo sare sozialen bidez eskatu eta herritarrari etxera bidaltzeko? Ez dago hori galarazten duen legerik. Beraz, azter dezagun nola erraztu eta azkartu ditza-kegun tramiteak. Horretarako, baina, Prozeduren Eskuliburua idatzi behar dugu aurrena, eta gero ikusiko dugu zein zerbitzu eskaini ahal dugun kanal bakoitzean.

**Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ) ere jarri nahi du abian udalak. Zer da zehazki? Herritarrei arreta presentziala emateko gunea izango da, eta bertan egin ahal izango dira udalarekiko tramite gehienak,**

“

**Herritarrei arreta zerbitzu integrala eskaintzea da helburua, eskura ditugun bost kanalak baliatuz: presentziala, telefonoa, posta, telematika eta sare sozialak**

departamentu ezberdinetara joaten ibili gabe. Eta beste erakunde batzuen eskumene-koak diren izapideak ere bertatik tramitatu ahal izango dira, Donostiara edo Gasteizera joan beharrik ez izateko.

**Martxoan hasi zinen lanean Oñatiko udaletxean. Zenbat denbora beharko da prozesua burutzeko?**

30 bat lan saio aurreikusten ditugu; beraz, urte amaiera arte luzatuko da. Uda parterako Prozedura Administrazioaren Eskuliburua prest edukitzea espero dut, eta gero hasiko gara aztertzen nola antolatzen dugun HAZ zerbitzua, eta erabiliko ditugun kanalak (telefonía, sare sozialak...) egokitzen. Datorren urteko otsailerako prest egon daitekeela uste dut. Beharbada, hobekuntza batzuk progresiboki inplementatzen joango dira, amaiera arte itxoin barik. ■

  	<p>• <b>GALDARAGINTZA - CALDERERIA</b> Oñateko zuzendaria, 25 • Tel.: 943 71 63 50 <a href="http://www.caravanasonate.com">www.caravanasonate.com</a></p> <p>• <b>BIZIKLETAK</b> • <b>ERREMOLKEAK</b> • <b>TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK</b> Oñateko zuzendaria, 25 • Tel.: 943 78 05 65 Atzeko kalea, 32 (erakusketa)</p>
---	--



# Ni banoa. Eta zu bazatoz?



- » Ekainaren 10eko Giza Katerako izen ematea zabalik dago
- » 1.000 oñatiar batzea da erronka

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea (201,9 km.) egingo da ekainaren 10ean. Oñatiarroi 187 eta 188 kilometroak egokitu zaizkigu, Zigoitian (Araba) eta horretarako 1.000 pertsona beharko dira. Ostegunetan (18:30-20:30) eman daiteke izena GEDren lokalean, Kale Barriko 22an.

## Ari al da jendea izena ematen?

Ari da, bai. Jende asko hurbildu da informazio eske. Somatzen da herritarrengan ilusioa piztu duela. Betiko moduan, jendea azkeneko egunera itxoiten egoten da izena emateko, baina ekimen erraldoi honek dakarren lana ahalik eta ondoen bideratzeko, izena lehenbailehen ematea komeni da.

## Zer egin behar du giza katean parte hartu nahi duenak?

Giza Katean izena emateko bi modu daude; alde batetik, internet bitartez [www.gureeskudago.eus](http://www.gureeskudago.eus) webgunean, eta bestetik, gure lokalean (Kale Barria 22)

saretze orriak betez. Saretzeak 5 € balio ditu eta zapi bat oparitzen da. Ostegunetan (18:30-20:30) egoten gara lokalean, eta zenbait egunean kalera ere aterako ditugu izena emateko mahaiak.

## Oñatin 1000 lagun batzea da helburua. Lortuko al dugu?

2014ko giza katean 2.500 bat oñatiar batu ginen. Egia da, orduko hartan etxetik oso gertu egokitu zitzaigula, eta aurtengoak esfortzu haundixeagoa eskatuko digula. Gu baikor gaude, eta espero dugu herritarren borondate eta

ilusioarekin gehiago izatea.

Epe-mugarik badago izena emateko? Azkeneko egunerarte egongo da aukera, baina, esan bezala, gauzak behar bezala antolatzeke, azken egunera begira ez egotea eskatzen dugu.

## Oñatiarrok Arabara joan beharko dugu. Autobusak egongo al dira?

Oñatiarroi 187-188 km.-ak egokitu zaizkigu Zigoitian (Araba). Autobusak antolatuko ditugu, bai, eta, gainera, lehenasuna izango dute autoen aurrean.

Ordutegiak aurrerago jakinaraziko ditugu, baina bi aukera egongo dira: Egun osoko txartela (10 €). Giza katea amaitu ondoren Gasteizera eramango gaituena eta iluntzean berriro Oñatira ekarriko gaituena; Egun erdiko (7€), giza katea amaitu ondoren Oñatira ekarriko gaituena.

## Girote ekitaldirik antolatu behar al duzue jendea animatzeko?

Klik eguna ospatuko dugu maiatzaren 26an, kalera atera eta E10ko mobilizazioa agendaren erdigunean kokatzeko. Kale animazioa, musika, luntxa eta sorpresak egongo dira.

## Zer esango zenioke jendeari Giza Katean parte hartzerantz animatzeko?

E-10eko Giza Kateak etorkizuna elkarrekin eraikitzeke borondatea erakutsi behar du, horrek ahalbidetuko duelako mugak eta oztopoak gainditzea. Erabakira iritsi arte lan egiteko daukagun determinazioa erabatekoa da. Etorkizun hobe batean sinisten dugulako. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitzeke elkarri eskua emango diogu.

## HERRITARRON ITUNA

Herritarren Itunarekin osatuko da aurtengo giza katea. Euskal Herritarrok erabakitzeke eskubidea gauzatzeko ditugun milaka arrazoiak biltzen ari da Gure Esku Dago, horixe baita finean Herritarren Ituna. Abiapuntu gisa, 2019 arrazoi biltzeko asmoa dugu, 2.019 urtea dugulako jomugan. Euskal Herritarrok nolako etorkizuna nahi dugun irudikatu eta eztabaidatzen hasteko unea da. Erabakitzeke eskubidea badugu eta arrazoiak ere soberan ditugu. Oñatiarrokin arrazoi bilketa eta Herritarren Itunaren lanketa **maiatzaren 12an** egingo dugu. Eltzian, goizeko 10tan. Herritar guztiei dago zabalik.





*Guztiona, guztion artean*



**Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!**

## Batxilergoa: Zuazola

- Banan-banako orientazio akademikoa: Unibertsitatera edo Lanbide Heziketara.
- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Talde txikiak.
- Teknologia berriak.
- Hizkuntzei arreta berezia:
  - Euskara, EGA eskuratzeko aukera.
  - Ingelesa, elkarrizketarako laguntzaileekin.
  - Frantsesa, Alliance Francaise titulua lortzeko aukera.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak (curriculum garatzeko).

### Modalitateak:

**Zientziak:** Matematika, Fisika-Kimika, Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa, Teknologia,...

**Gizarte zientziak:** Historia, Geografia, Matematika, Enpresaren Ekonomia...

**AURREMATRIKULA: maiatzaren 2tik 14ra.**

**ATE IREKIAK: maiatzaren 3an 18:00etan Zuazola egoitzan.**

## Heziketa Zikloak: Larraña


**Erdi mailako Heziketa zikloak:**

- Mantentze-Lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol Ekintzen Gidaritza

**Bestelako Hezkuntza eskaintza:**

- Lanerako prestakuntza: Langile eta langabetuentzat ikastaroak doan.
- Eskaeren araberako prestakuntza.

**ATE IREKIAK: maiatzaren 23an 18:30ean Larraña egoitzan.**



Itsasoa, piriniar mendialdea, Orreaga, Gernika, Iruñea, Zugarramurdi, Amaiur, Noain, Leire, Sartaguda, Montejurra, Sara, Gallarta... gure historiaren eskenatokiak dira. Gure identitateaz eta gure historiaren mintzatzen diren lekuak, eta berebiziko garrantzia dute. Komunitate baten nortasuna eraikitzeko eta gizartearen kohesioa lortzeko. Zoritxarrez, baina, ez ditugu behar bezala baloratzen. Horregatik, gure erreferenteak indartu eta kokatuko dituen memoria lekuen mapa bat osatu eta euskal nortasunaren errelatoan sakontzea da Oñatin egingo den 'Memoria lekuak' jardunaldiaren helburua.

# 'Memoria lekuak'

**Nabarralde Fundazioak eta Udalak antolatuta, 'Memoria lekuak' jardunaldia egingo da Oñatin maiatzaren 20tik 26ra**



Zein dira memoria lekuak? Zein dira gure identitateaz eta gure historiaren mintzatzen diren leku horiek? Merezki duten bezala baloratzen al ditugu? Galdera horiei erantzun eta hausnarketari ateak zabaltzeko helburuarekin, *Memoria Lekuak*

izeneko jardunaldia ospatuko da Oñatin maiatzaren 20tik 26ra, Nabarralde Fundazioak eta Hernani Errotzen elkarteak antolatuta, Oñatik udalaren eta Laboral Kutxaren babesarekin.

*Memoria lekuak* kontzeptuan



sakondu eta gizarteratzea da jardunaldien helburua, Angel Rekalde Nabarraldeko zuzendariak adierazi duenez. "Gure kultura eta iruditeriarekin lotura zuzena duen kontzeptua da, baina, tamalez, oso ezezaguna da gure gizartearen".

**Amaia Igartua**  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**

-Zaharberritzeak -Ituskarritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

**COINBROKER**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Aranzazuko Arna Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oñati@coinbroker.eus  
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

Itsasoa, Piriniar mendialdea, Orreaga, Gernika, Iruñea, Zugarramurdi, Amaiur, Noain, Leire, Sartaguda, Sara edo Gallarta bezalako lekuak gure historiaren eskenatokiak dira, iruditeria konpartitua eskaintzen digute, eta berebiziko garrantzia dute gure nortasuna eraikitzeko.

Horregatik, jardunaldi hauen helburua da gure herriaren memoria lekuen mapa bat proposatzea, gure erreferenteak kokatu eta indartuko dituen, eta horren bitartez iruditeria kolektiboa garatzea. Euskal nortasunaren errelatoan sakontzea azken batean.



## HITZALDIAK ETA BESTELAKO JARDUERAK

Maiatzaren 25ean emango zaie hasiera biltzarrari Quim Torra idazle eta politikari katalanaren hitzaldi batekin. Kataluniako Asanblea Nazionaleko kide eta Omniun Culturaleko buru ohia da Torra.

Egun indartsuena larunbata izango da, goizetik arratsaldera luzatuko den programarekin. Amaia Nausia, Eneko Bidegain, Xabier Irujo, Jose Luis Orella Fernando Sanchez Aranaz eta beste hainbat adituk parte hartuko dute askotariko gaiak jorratuz: Zugarramurdiko mitoa, Nafar gazteluak, Iruñeko erresuma, Gernika... (ikus egitaraua ondoko taulan).

Baina hitzaldi eta mahai-inguruez gain, bestelako jarduerak ere izango dira, herritar orori irekiak. Hala, maiatzaren 20ean mendi irteera gidatua egingo da Orreagara, Aloña Mendik antolatuta eta Beñi Agirre historialariak gidatuta.

Bestalde, maiatzaren 22an Nabarraldeko Fundazioak iaz ekoiztu zuen dokumentala (*Beloaga. Memoriaren behatokia*) aurkeztuko da, eta gainera, 'Navarrorum' erakusketa egongo da udaletxean, maiatzaren 23tik ekainaren 3ra.

## ERAKUSKETA

### 'NAVARRORUM. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea'

'Memoria lekuak' jardunaldiaren baitan, 'Navarrorum' erakusketa egongo da ikusgai Parrokiako klaustroan maiatzaren 23tik ekainaren 3ra. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak sortutako erakusketa honetan, gure mintzairak Antzinako Erromatik XIX. mendera arte izan duen agerpena jasotzen duten dokumentuak ikus daitezke. Oso interesgarria da erakusketa eta, gainera, luxuzko bisita gidatua egingo da maiatzaren 24ean, Peio Monteano erakuskearen komisarioaren eskutik.



# MEMORIA LEKUAK

## EGITARAUA

### MAIATZAK 20, igandea

09:00 Mendi irteera gidatua: '**Orreaga, erresuma baten sorrera**', Aloña Mendik antolatuta eta Beñi Agirre irakasleak gidatua.

### MAIATZAK 22, asteartea

19:00 Dokumental emanaldia. '**Beloagako gaztelua. Memoriaren behatokia**'

### MAIATZAK 23-EKAINAK 3

Erakusketa, Parrokiako klaustroan. '**Navarrorum. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea**'.

### MAIATZAK 24, osteguna

19:00 Bisita gidatua udaletxeko areto nagusian '**Navarrorum**' erakusketara, Peio Monteanoren eskutik (erakusketaren komisarioa).

### MAIATZAK 25, ostirala

18:30 Jardunaldien irekiera ekitaldia. **Mikel Biain** (alkatea) eta **Luis M<sup>a</sup> Martínez Garate** (Nabarraldeko kidea, jardunaldietako zuzendaria) 19:15 Hitzaldia. '**Los lugares de la memoria**' Quim Torre (idazlea).

### MAIATZAK 26, larunbata

09:00 Akreditazioak eta dokumentazioa  
09:30 Hitzaldia: '**Zugarramurdiko sorginen memoria. Emakum<sup>en</sup> gaiztoaren mitoa**' Amaia Nausia (historialaria).  
10:00 Hitzaldia: '**Orreaga. Nafarroako gazteluak**'. Iñaki Sagredo (historialaria)  
10:30 Hitzaldia: '**Iruñea hiriburuzagia. 778-1512**'. Mikel Sorauren (historialaria).  
11:30 Hitzaldia: '**Morts pour la Patrie. Memoria politikak**'. Eneko Bidegain (Mondragon Unibertsitatea).  
12:00 Hitzaldia: '**Las Carlistadas. Zumalakarregi**'. Fernando Sánchez Aranaz (idazlea).  
12:30 Bideo-hitzaldia: '**Gernika: fueroak, arbola...**'. Xabier Irujo (Reno-ko Unibertsitateko Euskal Ikasketen zuzendari ordea).  
12:45: Mahai-ingurua: '**Zugarramurdi, inkisidoreen delirioa**'. Hizlariak: Amaia Nausia, Eneko Bidegain eta Beñi Agirre. Moderatzailea: Miren Mindegia (Nabarralde).  
16:00 Hitzaldia: '**Identidad industrial, memoria colectiva. Pasado, Presente y Futuro de los lugares de la industria**'. Amaia Apraiz (Artearen Historian doktorea).  
16:30 Hitzaldia: '**Euskara. Memoria gunea**'. Beñi Agirre (irakaslea).  
17:00 Hitzaldia: '**Itsasoa. Baleak, arrantza, ontzigintza...**' Jose Antonio Azpiazu (historialaria).  
17:30 Mahai-ingurua: '**Nuestros lugares de memoria**'. Hizlariak: José Luis Orella Unzue (Erdi Aroko historian katedraduna), Fernando Sánchez Aranaz (idazlea), Ainara Martínez (historialaria). Moderatzailea: Luis M<sup>a</sup> Martínez Garate.

**IZEN EMATEA** (Soilik beharrezkoa maiatzaren 26ko jardunaldirako)

**Epea:** maiatzak 20. **Prezioa:** 10 € (izen ematea + bazkaria: 25 €)  
[www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus) webgunean edo Oñatiko udaletxean.



# Hazitegiak

## egokitu dituzte San Martingo baratze parkean

San Martingo baratze parkea sendotuz doa urtetik urtera. Aurten hazitegiak prestatu dituzte, goiko argazkian ikusten den moduan, eta bestelako proiektuak ere badituzte esku artean. Datorren urtera begira zizare bidezko ongarria bertan sortzeko asmoa dute, besteak beste. Joxe 'Loba'k eman digu horien berri. Baratza parkea kudeatzen duen Okitaño elkarteak juntako kidea da eta lanabesak zaintzeaz arduratzen da.

San Martingo baratza parkea sendotuz doa urtetik urtera, eta aurten urrats berria eman duzue, hazitegiak egokituta. Erabailtzaile batzuen egarria zen, bakoitzak bere landareak ateratzea, eta, halaxe, interesa genuen 16 erabiltzaile batu eta zortzi hazitegi prestatu ditugu udalaren laguntzarekin. Aste Santu aurtxoan erein genituen haziak eta, dagoeneko, prest daude landarak baratzetan

landatzeko: tomate eta letxuga mota ezberdinak, kalabazinak, kalabazak, piperrak, berenjenak, kardoa...

**Sendabelarrak ere landatu dituzue, ezta?**

Bai, sendabelarretan aditua den Josep Pamies kataluniarra ekarri genuen martxoaren 3an hitzaldi bat ematera, eta berak emandako 16 landareren haziak erein ditugu. Gure osasunerako propietate ezberinak dituzten landareak dira, eta dagoeneko prest daude, nahi duenak bere ortuan landatzeko.

Josep Pamiesen webgunean (<https://pamiesvitae.com>) informazio ugari dago sendabelar ezberdinek dituzten propietate eta erabileraren inguruan. Uste dut interesgarria dela, beste aukera edo alternatibak ere badaudela ezagutzea.

**Zizare bidezko ongarria sortzeko asmoa ere ba omen duzue.**

Bai, gaur egun erosi egiten dugu ongarria, eta urtean 900 bat euro gastatzen ditugu. Beraz, asmoa da gune bat egokitzea zizareen bidez humusa bertan sortzeko, bai solidoa eta baita likidoa ere. Uste dugu urtean 5 metro kubiko ongarri sortzeko gai izango garela, eta horrekin baratze guztietarako adina izango genuke.

Udalarekin adostu behar dugu non eta nola egokitzen dugun konposta gunea, eta gure asmoa da aurten martxan jartzea eta datorren urteko udaberrirako behintzat onga-



ria prest edukitzea.

Atsedeneku edo egonleku ederra ere prestatu duzue baratza parkeko kasetaren ondoan.

Udalak egokitu zuen iaizko udazkenean. Bertan egiten ditugu bilerak eta hitzaldiak, eta, tarteka, bazkariren bat ere bai, ortuko uztarekin. Lasai egoteko moduko lekua da, bai guretzat, bai auzotarrentzat eta baita edozein herritarrentzat ere.

**Fruta arbolak landatzeko asmoa ere ba omen duzue.**

Bai, inguruak txukuntzeko asmoz, ortuen eta etxebizitzaren artean dauden berdeguneetan bertako fruta arbola ezberdinak (intxaurra, gerezia, sagarra, pikua...) eta bestelako arbola batzuk (lizarra, haritza, urkia...) landatzea da gure asmoa, baina ezertan hasi aurretik inguruko bizilagunekin hitz egin behar dugu, asmoen berri emateko.

**Kostata, baina iritsi da azkenik udaberria, eta horrekin batera bizia eta kolorea San Martingo baratze parkera.**

Negu partean ez da aktibitate handirik egoten. Hamar bat lagun ibiltzen gara, baina ortu gehienak geldirik egoten dira.

Apiriletik aurrera hasten da mugimendu handiena. Lurra goldatu, ongarritu eta San Isidro egunerako, eguraldiaren arabera, landaketak eginda egoten dira: tomate eta letxuga mota ezberdinak, piperra, leka, berenjena, pepinoa... Landare



Atsedeneko lekua egokitu dute baratze parkeko etxolaren ondoan

aromatikoak (erromeroa, menta, hierbabuena...) ere landatzen dira, eta espeziak ere bai (albahaka, perejila...). Landare exotikoekin esperimentatzen duenik ere bada. Barietate handia egoten da.

**Laugarren urtea beteko du aurten San Martingo baratze parkeak. Zein da balorazioa?**

Nik uste dut positiboa dela; 68 erabiltzaile hasi ginen duela hiru urte (74 ortu daude guztira), eta une honetan 62 gara. Batzuk utzi egin dute, eta beste batzuk sartu dira. Beraz, hiru urteko jardunaren ostean, uste dut datu ona dela.

Erabiltzaileok gustura gaude. Elkarri lagundu eta elkarrengandik ikasten dugu, eta oso aberasgarria da. Eta herritarrek ere begi onez ikusten dutela uste dut; jende asko joaten da pasioan, ortuak ikusi eta erabiltzaileekin hitz egitera.

**Zer egin behar da libre dauden ortuetako bat erabili nahi izanez gero?**

Udaletxean egin behar da

## FURGOBARATZA ZERBITZUA

**maiatzaren 4an**

Aurten ere Furgobaratza zerbitzua eskainiko du Okitaño elkarteak San Martingo baratza parkean. Ekoudalatx mintegiko Nerea Altuna eta Idurre Aranguren arrasatearrak etorriko dira San Martingora, landare eta produktu ekologikoak saltzera, eta baratza kideen zalantza argitu eta aholku teknikoak eta gomendioak ematera.

Zerbitzu hau herritar guztientzat da. Lehenengo saioa maiatzaren 4an izango da (16:30-18:30) baratza parkeko etxolaren ondoan.

eskaera, eta gero udalak guri ematen digu eskaeraren berri, eta hitzordu bat jartzen dugu eskatzailearekin, hemengo arau eta funtzionamenduaren berri emateko. Fidantza gisa 70€ ordaintzen dira (ortua utzita-koan berreskuratzen dira) eta horrez gain urteko kuota, batzarrean erabakitzen dena. Aurten 90€ jarri ditugu.

Baratzekideok 'Okitaño' izeneko elkarteko kide gara, eta geu arduratzen gara baratze parkearen kudeaketaz. Zazpi lagunez osatutako junta bat dago, eta batzarrean hartzen dira erabakiak. Udalak %75ean finantziatzen ditu epe luzerako azpiegiturak, eta %50ean hitzaldi eta formazio saioak.

**74 partzela daude San Martingo baratze parkean eta gaur egun 62 erabiltzaile daude**



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia



**PAKITA**  
Altzariak



Berezaio Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTATUTAKO ALTZARIAK

# IRAZOLA

**Okindegia**



Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserriko ugia, eguneko laurteen sarrua

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

# AUZO-TAXIA

## behar beste aprobetxatzen ez den zerbitzua



**Herriko taxilarien artean ematen dute auzo-taxi zerbitzua. Iaz 1.226 bidaia egin ziren guztira.**

**B**i urte bete dira udalak auzo-taxi zerbitzua abian jarri zuenetik, eta balantzea egin nahi izan dugu erabiltzaile, taxilari eta udal arduradunen iritziak batuta. Erabiltzaileak, oro har, oso gustura daude zerbitzuarekin, eta taxilariak ere konforme. Baina erabilera datuei erreparatzen badiegu, atera daitekeen ondorioetako bat da, zerbitzua ez dela erabiltzen espero zitekeen neurrian erabiltzen. Azken datuen arabera, iazko uztailetik abendura 1.226 bidaia egin ziren guztira, baina 34 lagunek bakarrik erabili zuten zerbitzua (156 herritarrek dute erabiltzaile txartela), eta bidaia guztien %80 hamar lagunek egin zituzten. Hau da, oso gutxi izan dira onuradunak.

Erabilera uste baino apalagoa izanik ere, udaleko Landa Garapena batzordeko buru den Mikel Biainek positiboki baloratzen du auzo-taxi zerbitzua. "Helburua da, autobusa iristen ez den landa eremuetako bizilagunei garraio zerbitzua eskaintzea, prezio publiko batekin. Gustatuko litzaiguke erabilera zabalagoa izatea auzo-taxiak, baina, azken batean zerbitzua hor dago, landa auzoetako bizilagun guztien eskura, eta erabiltzen dutenak behintzat oso gustura daude. Beraz, zerbitzuarekin jarraitzea da gure asmoa, eta aurten ere informazio kanpaina berria egingo dugu".

Udalak eta taxilariak 11 eurotan adostu zuten zerbitzu bakoitzaren prezioa, eta erabiltzaileak 2 € ordaintzen ditu bidaiako. Gainerako udalak ordaintzen du. Aurtengo aurrekontuetan 20.300 euroko diru-atala dauka udalak zerbitzuaren kostuari aurre egiteko. Iaz 7.700 euro gastatu ziren.

### ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

#### ONURADUNAK

- Landa auzoetan erroldatuta dauden herritarrak (autobus geltoki batetik 350 metro baino gutxiagora bizi direnak salbu).
- Auzo-taxi txartela eskatu behar da udaletxean.
- Adin txikikoek (5-18 urte) guraso edo tutore baten baimena behar dute.

#### ZERBITZUA

- Herrigunetik auzoetara edo auzoetatik herrigunera joateko zerbitzua da.
- Bidaia bakoitzeko 2€ ordaintzen ditu erabiltzaileak.
- Norbaitek Oñatitik kanpora joan nahi badu, taxi tarifa arrunta ordaindu behar du.
- Herriko 5 taxilariaren artean ematen dute zerbitzua. Aste bakoitzean goardian dgoenak.
- Zerbitzu egokia bermatzeko, 24 ordu lehenago erreserba egitea gomendatzen da, **943915211** zenbakira deituta.

#### EGUTEGIA

- Auzo-taxi zerbitzua astelehenetik ostiralera (07:30-20:00) eta larunbatetan (09:00-14:00) eskaintzen da.

*Urte askotan zuekin*

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)




## TXARTELA ATERA BEHAR DA ZERBITZUA ERABILTZEKO

Oñatiko landa auzoetan erroldatuta dagoen edozein herritarrek erabil dezake auzo-taxi zerbitzua, baina aurrez erabiltzaile txartela eskatu behar da udaletxean:

- Sarrerako erregistroan
  - 943 780 411
  - nekazaritza@onati.eus
- Gaur egun **156** herritarrek daukate erabiltzaile txartela.

## 2017 BIDAI KOPURUA AUZOKA Bidai kopuru osoa: 1226



## ERABILTZAILEEN IRITZIAK

### M<sup>a</sup> Carmen Inza

Sarri erabiltzen dut auzo-taxi zerbitzua, kalerara jaisteko eta, batez ere, etxera bueltatzeko, aldapa dagoelako etxera bidean. Badaukat kotxeko karneta, baina begian arazo txiki bat daukat, eta, badaezpada, nahiago dut seguru ibili. Oso eroso da, eta oso konforme nago zerbitzuarekin. Komeni den lekuan uzten zaituzte, eta bila ere, zauden tokira etortzen da. Taxilarien tratua oso egokia da.



### Arantxa Garitaonandia

la egunero erabiltzen dut laneko joan-etorria egiteko eta oso gustura nago. Auzoetan bizi garenontzat oso zerbitzu ona da. Jende asko dago kotxerik ez duena eta beti beste baten menpe ibili beharra daukana. Eskatzen hasita, zerbitzua larunbat arratsaldera luzatzea ondo legoke, eta igande goizekoa ere aztertu egin beharko litzateke; Arantzazun autobusa daukagu baina beste auzo batzuetan ez.



### Doris Pumayauli

Niretzat oso lagungarria da auzo-taxia. Ez dakit kotxea gidatzen eta egunero erabiltzen dut umea eskolara eramateko. Eta ni neu ere presaka nabilenean edo pisuarkein baldin bano, auzo-taxia erabiltzen dut etxera etortzeko. Oso pozik nago zerbitzuarekin. Hobetze aldera, larunbat arratsaldera eta domeka goizetara ere zabaltzea eskatuko nuke, umeek aktibitateak izaten dituztelako.



### Jose Luis Rabanete

Taxilariok gustura gaude zerbitzuarekin. Jende gehiagok erabiliko zuela uste genuen, baina erabiltzen dutenak behintzat oso pozik daude. Erabiltzailearentzat oso eroso da, eta ohitu dena oso konforme dago. Guretzat batzuetan buru-haustea izaten da auzo-taxia, adibidez aireportura zerbitzuren bat daukagunean, baina batek ezin badu, beste taxilari bati deitzen dio eta beti joaten da norbait.



Bezeroen beharrei  
erantzuteko prest!



**GUALBI**  
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasores.com

[www.gualbiasores.com](http://www.gualbiasores.com)

# ARANTZAZU ERREKAKO PAISAIA-PLANAREN EKINTZA PLANA

## Errekari eta bere baitan jasotzen dituen zentral hidroelektrikoei **begirada berria**

Oñatik aspaldi du harremana energia hidraulikoarekin, izan ere bere horretan jarraitzen dute oraindik harreman honen lekuko diren industrializazio aurreko errota eta presa txiki ugari.

Gure bailaran, energia hidraulikoa ekoiztea ez da atzo goizeko kontua. Bultzadarik indartsuena 1900 urtetik aurrera izan zuen, Union Cerrajera (UCEM) enpresarekin batera, Arantzazu eta Ubao erreketako energia hidraulikoa lortzeko ekoizpen-sistema garatu zenean.

Union Cerrajeraren lehen burdinola elikatzen zuen presa txikia Etxaluzen zegoen, Arrasateko San Andres auzoan. Baina horniketa arazoak bultzatuta Oñatiko **Biaín y Cía** konpainiarekin sinatu behar izan zuen kontratua.

1911. urtean, UCEMek **Ubao, Tokillo, Lamiategi, Jaturabe eta Olateko jauziak erosteko** eskaintza aurkeztu zion konpainia Oñatiarrari. Eskaintza hau onartzerakoan ordurarte Leintz bailarako horniketaz bakarrik arduratzen zen Olate, Gipuzkoako bigarren zentral hidroelektrikoa izatera pasatu zen eta UCEM energia hornitzaile garrantzitsua bihurtu zen.

Oñatin sortu zen energia gunea euskal Herriko industria garapenerako ezinbestekoa izan zen eta garrantzi teknologiko izugarria izan zuen. Egun, gune hau balio kulturala duten paisaia-industrial inbentarioaren (2012) aipagarrietako bat da. Partzialki aktibo jarraitzen du eta estatu mailan energia ekoizpenari lotutako paisaia istoriko bakarrenetakoa da.

Oñatiren historiari eta iraganari lotuta dago berriztagarria eta garbia den energiaren ekoizpen hau eta Udala betidanik aktibitate honen partaide izanik, aktibo mantentzen diren jauzien

ardura duen enpresaren bazkide izaten jarraitzen du.

Hala ere, gaur egun aktibitate hau osatzen duten elementu fisiko zein biologiko batzuk arriskuan daude: jaustear, lohiz betetak, Arantzazu erreken ahalmen ekologikoa murrizten duten ur batzeak e.a. Honek, etorkizunean nahi dugun paisaia definitzerako orduan, energia hidroelektriko ekoizpen-sistemaren mantenuaren eta erreka-ekosistema berreskuratzearen arteko oreka lortzera behartzen gaitu, Aizkorri-Aratz parke naturalaren periferiaz hari garela ahaztu gabe.

Guzti hori kontuan izanik, Oñatiko Udalak eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzarekin baliatuz, aurrea hartu eta 2017. urtean Arantzazu erreketako paisaia-planaren ekintza-plana idazten hasi zen Ecoingenia enpresaren eskutik.

Ekintza-plana honen helburu nagusia Arantzazu erreka zeharreko paisaiaren kalitatea eta erabilera sustatzea da, ingurumena, kultura ondarea eta balio industrialak kontuan hartuz.

Guzti hau hurrengo belaunaldietan Arantzazu erreketako paisaia eraikitzeko ibilbide-orria izango den ekintza proposamenak jasotzen dituen dokumentuan isladatuko da.

Arantzazu erreketako paisaia-planaren ekintza-plana azaroan bukatuko da eta hildo honetan, parte-hartze tailer tekniko bat antolatu da maiatzaren hasierarako. Tartean dauden pertsona, ordezkari eta kolektibo guztiak gonbitatuak izango dira eta bertan ekintza-planak zehazten dituen akzioen inguruko hausnarketak egin ahal izateko aukera egongo da. Ikuspuntu ezberdinak eta planak barne hartzen duen zonaren paisaia-etorkizuna bateratzeko foroa izango da.



Jaturabeko urtegiaren aspaldiko irudia

### Ekintza-Plana lantzeko **tailer tekniko** maiatzaren 8an udaletxean (18:30)

**Helburua da Arantzazu erreka zeharreko paisaiaren kalitatea eta erabilera sustatzea, ingurumena, kultura ondarea eta balio industrialak kontuan hartuz**

Arantzazu erreketako paisaia-planaren ekintza-plana azaroan bukatuko da eta hildo honetan, parte-hartze tailer tekniko bat antolatu da maiatzaren hasierarako. Tartean dauden pertsona, ordezkari eta kolektibo guztiak gonbitatuak izango dira eta bertan ekintza-planak zehazten dituen akzioen inguruko hausnarketak egin ahal izateko aukera egongo da. Ikuspuntu ezberdinak eta planak barne hartzen duen zonaren paisaia-etorkizuna bateratzeko foroa izango da.





# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA 5.COOP

75

75 URTEZ JAIENTZA GUSTOKITZ  
ETORRIKIDUNA ERANTZETZU

## Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 23    18:00

### Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz  
gmhz.mgep@mondragon.edu  
943 71 21 91







## Etxerako zerbitzua

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDEAK 19:30ETATIK AURRERA

\* gutxienez 30€ eskezia BE. Garmis zerbitzua 16€ koadratuko da.  
Ordaintzerokuan, kreditu kartelak onartzen dira.



7,5€

- Lapiko Txiki menu indibiduo bat



LAPIKO  
GORRI  
GASTROTEKA

ULTZEGIN 11, OÑATI • Tel. 943 50 20 70 •

# Maiatzeko bigarren asteburuan jarriko da martxan kamera bidezko kontrol sistema Txaketuako bidegurutzean



Maiatzaren 11-13ko asteburuan jarriko da martxan Zazpibidietako (Txaketa) bidegurutzeko trafikoa kamera bidez zaintzeko sistema. Aste honetan instalatuko dute kamera Unibertsitate etorbidean, eta soporte informatikoa udaltzaingoa. Datorren astean zehar bide-seinaleak jarriko dituzte, gune horretan trafikoa kamera bidez zaintzen dela ohartarazten dutenak, eta, esan bezala, maiatzaren bigarren asteburuan sartuko da indarrean zaintza sistema berria.

Unibertsitate etorbideko 4 zenbakiaren parean jarriko den kamerak ibilgailuen matrikulak irakurriko ditu, eta baimendutako ibilgailuren bat igarotzen denean, alerta seinalea igorriko du udaltzaingora, eta 200 €ko isuna (100€, azkar odainduz gero) jasoko du gidariak, zirkulazioa

debekatzen duen seinalea ez errespetatzeagatik.

Gogoratu, Txaketuako bidegurutzea trafikorako itxita egoten dela ostiral arratsaldetik (16:00) larunbat goizerarte (07:45), larunbat eguerditik (12:00) igande gauerdirarte (00:00), eta jai egunetan. Egun eta ordu horietan baimendutako ibilgailuak bakarrik pasa daitezke bertatik.

Orain arte hesien bidez itxi izan da bidegurutzea, baina zenbait gidarik errespetatzen ez dutela ikusita, kamera bidezko kontrol sistema jartzea erabaki du udalak. Sistemak ondo funtzionatzen badu, Ramon Irizar kalean eta Iturritxo parean (Atzeko Kaleko sarreran) ere sistema bera jartzeko asmoa du udalak, piboteak kenduta.



## BI MOTATAKO BIDE-SEINALEAK

Bi seinale mota jarriko ditu udalak, Txaketuako bidegurutzeko ordutegia eta kamera bidezko kontrol sistemaz ohartarazteko:

Alde batetik, lerro hauen gainean ikusten den seinalea jarriko da Unibertsitate etorbidearen sarreran (zubi parean) eta Mendiko Kale inguruan. Edukia edo informazioa aldatzeko aukera ematen duten seinaleak dira. Bidegurutzea zabalik dagoenean 'Erdigune historikoa' adierazten duen irudia azalduko da, eta, bestela, zirkulaziorako debekua adierazten duena.

Bestetik, eskumako irudietan ikusten diren totem erako seinaleak jarriko dira Aita Madina kaleko bidegurutzean, eta Maiatzaren 1a plaza inguruan, abiadura muga edota zirkulaziorako debekua adieraziz, ordutegiaren arabera.



# Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza deialdia

Apirilaren 4an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Enpresa berriak sustatzeko udalaren dirulaguntza deialdia, eta, beraz, zabalik dago eskaerak egiteko epea, azaroaren 30era arte.


- Onuradun izateko bete behar diren baldintzak:
  - Enpresa jarduera berriaren sustatzaileak Oñatin erroldatuta egoitea, gutxienez 6 hilabeteko antzinatearekin.
  - Sortzen den enpresa berriak Oñatin izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, baita lantokia ere.
  - Enpresa jarduera berriaren antzinatea gehienez urte betekoa izatea. Horretarako, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta ematen den datatik laguntza eskaera egiten den datara arteko epea hartuko da kontuan.
- Laguntzen zenbatekoak:
  - Enpresaren alta ematen den momentuan, enpresaren sustatzaileek sorturiko lanpostu bakoitzeko 1.500 euroko laguntza.
  - Lehen sektoreko aktibitateen kasuan, enpresa alta ematen den pertsona bakoitzeko 3.000 euroko laguntza.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
  - Eskaera orria.
  - Diru-laguntzaren xede diren lanpostuen titularren NANaren kopiak.
  - Ekonomia Jarduera Gaineko Zergan (EJZn) alta eman izanaren egiaztagiria.
  - Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta eman izanaren egiaztagiria.
  - Dagokion kasuan, sozietate pertsonalistaren, merkataritza sozietatearen edo gizarte ekonomiako sozietatearen eratze egiaztagiria.
  - Enpresa proiektuaren aurkezpena edo bideragarritasun azterlana.
  - Dirulaguntza ingesatu beharko litzatekeen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

Laguntzak eskatzeko epea 2018ko azaroaren 30ean amaitzen da.

## Errekaldeko sotoa egokitzeko lanak Hezkuntza sailaren laguntzarekin egingo ditu udalak

Ia 400.000 euroko aurrekontua duten egokitzapen lanak egingo dira Urgain-Errekalde eskolan, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak obren kostuaren %60 (236.855 €) bere gain hartuko du. Gainerakoa (157.903 €) udalak ordainduko du. Lanik potoloena eraikinaren sotoan egingo da; urteetan herriko musika taldeek eta Oñatzek erabili dituzten lokalak jardun akademikorako egokituko dira eta, gainera, hezetasun arazoak konpontzeko neurriak hartuko dira. Bestalde, teilatua impermeabilizatu eta bizi-lerroa jarriko da. Lanak udako oporraldian egingo dira.

## Auzo-bideetako arekak eta lurjauziak garbitu ditu udalak



Goiko argazkiak erakusten duen moduan, udalak Lanbideren Enplegu-Planaren bidez kontratatutako lau langile eta udal brigadako makinistak jardun dute hiru hila-betez auzo-bideetako arekak eta lurjauziak garbitzen. Urrexola, Garagaltza, Berezaio, Murgia eta Zañartuko bideak garbitu dituzte.

### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



## Kiroldegia eraberritu eta handitzeko proiektuaren idazketa lizitaziora ateratu du udalak

Zubikoa kiroldegiaren alde zaharra eraberritu eta behar berrietara egokitzeko proiektu teknikoaren idazketa lizitaziora ateratzea erabaki du udal gobernu taldeak. Honako lanak jaso beharko ditu proiektuak: igerilekuko ontzi handia zein txikiaren ur lamina handitzea eta sakonera egokitzea, eta igerilekuei lotutako zerbitzu eta instalazioak (aldagelak, sauna...) antolatzea modu funtzionalean. Gainerako kirol instalazioen berrantolaketa ere jaso beharko du (fitness gela handitu, padelerako bi pista estali, ekintza gidatueetarako areto berriak...). Zerbitzu orokorren espazioaren berrantolaketa, eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurriak, eta, oro har, azpiegitura eta instalazioek gaur egungo araudia betetzen dutela ere bermatu beharko du proiektu teknikoak.

Asistentzia teknikorako kontratuaren gehieneko prezioa 350.000 eurotan (BEZ kanpo) finkatu du udalak, eta proiektuaren xede diren obrek ezingo dute gainditu 4.000.000 €-ko aurrekontua.

## Bakardadeko Ama kaleko argiteria hobetuko du udalak

Gipuzkoako Urak S.A. Bakardadeko Ama kalean egiten ari den lanak baliatuz, argiteria berritzea erabaki du udalak, egun dauden 150 W.-ko 10 luminarien ordez, led motako 13 argi puntu berri jarritz. 12.877€ko (BEZ kanpo) aurrekontua dute lanek.

## Elorregiko autobus geltokian komuna jartzea eskatu dute

Elorregi auzoko alkatearen eta hainbat herritarren eskaera aintzat hartuz, Elorregiko geltokian komuna jartzeko eskaera luzatu dio udalak Aldundiari, komunaren kokalekua, ezaugarriak eta behar diren azpiegiturak zehazten dituen txosten teknikoarekin batera.

## HOTZ-OÑATIK Oñatiko herriari

Errefuxiatuek bizi duten egoera larriari aurre egiteko lanean ari den Hotz-Oñati taldeak eskerrak eman nahi dizkio Oñatiko herriari, apirilaren 19 eta 21 artean egin zen material bilketa kanpainen erakutsitako eskuzabaltasunagatik. Aurretik egingako bilketetan 4.000 kilo elikagai batu izan dituzte, baina oraingoan 6.000 kiloko langa gainditu dute.

Beraz, eskerrik beroenak eman nahi dizkiete parte hartu zuten herritar guztiei, lanean aritu ziren bolondresei, eta, bereziki, kanpainarekin bat egin zuten denda guztiei. Batutako materiala Greziara bidaliko dute.

Halako erantzuna jasotzeak lanean jarraitzeko adorea eta indarra ematen duela adierazi du Hotz-Oñatik. Apirilean elkarte ofizial gisa eratu da Hotz-Oñati, eta esparru ezberdinetan eragiteko antolaketa osatzen ari dira une honetan. Ateak zabalik dituzte lagundu nahi duten herritar guztientzat.

## SAN MIGEL TXIKI JAIETAN BOKADILOAK SALGAI

Zoritxarrez, gogorarazten du Hotz-Oñatik, errefuxiatuen krisiako egoera tamalgarrian jarraitzen du. Blokeo egoerak bere horretan jarraitzen du Grezian, eta laguntza premia inoiz baino handiagoa da.

Aurrera begira ekintza ezberdinak antolatzen ari da Hotz-Oñati, eta lehenengoa San Migel Txiki jaietan izango da; txosna bar jarriko du jai gunean bokadiloak saltzeko.

**OÑATI GARBIKETAK S.L.**

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 732 733 712  
argitagarbi@hotmail.com

**ARGITAGARBI**

**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

## IKASTAROAK\*

\* tañle murriztuak.

INFORMAZIO GEHIAGO:

sapiensbe@gmail.com edo 658 382 928

### EKAINAK 2

(9:30-13:00)

Gosari osasungarria eta ariketa fisikoa baraurik.  
(Showcooking)



### EKAINAK 9

(10:00-13:00)

Indar ariketen onurak haurdunaldian.



### UZTAILAK 7

(9:00-13:00)

Kalistenia (gorputzeko pisuarekin egindako ariketak).



Egon osasuntsu,  
izan zoriontsu!

## ZERBITZUAK

- Fisioterapia eta errehabilitazioa  
*Lesio arruntak, kirol lesioak, istripuak...*
- Uroginekologia  
*Gernu galerak, erredukazioak, inkontinentziak...*
- Kirol eta osasun zerbitzua  
*Entrenamendu pertsonalizatua, GAH, Pilates...*
- Indiva ProRecovery zerbitzua
- Amatasunera gertakuntza eta erditze osteko gimnasia

San Lorentzo 54, behea  
Tel.: 943 53 32 99  
Mug.: 652 71 21 23  
email: eratu@euskalnet.net  
[www.eratufisioterapia.com](http://www.eratufisioterapia.com)

 Eratu Fisioterapia Zentroa



ERREHABILITAZIO, FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA ZENTROA

# Kontzejupetik



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala

**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi

**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

**INPRIMATEGIA:** Gertu

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus

**Publizitatea:** publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraan izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## Salaketa

Agustin Goenaga Urzelai

Egungo polit askoa zabaldu du Oñati herrian. Hotzaldiak atzera egin eta tokia utzi dio bestelako egun bigunago bati, eta jakina, horrek hegoaldera begira jartzen gaitu ilusio eta sentipen goxo berrituekin. Eguerdi aldera epelaren goxoak tokia jan die laiotz guneei, oñatiarren hizkeran *ainube* diren txoko, kale eta kantoi ilunei. Plaza nagusian ere nabari da, kopuruari eta janzkerari erreparatuz gero, era lasaiagoan mugitzen ari dela jendea; bufanda, txano eta bestelako alpinista jantziak armairuan utzita kaleratu da gaurkoan.

Bestalde, bi lagun agertu dira plazaren muturrean. Ibilera azkar eta urduri antzean zuzen jo dute udalaren ate nagusiraino. Atarian, sartu ez sartu moduko itxurak egin, eta bat-batean, ziztu bizian, hasi dira harrizko eskailera zabal ederretik gorako bidean. Mailak binaka, hirunaka ere igoaz, laster asko dira eskailera-buruan. Alkatearen bulego aurrean daude. Urduri. Atzera egiteko imintzioa keinua egin du batak, baina bien arteko ausartenak hortzak erakutsi dizkio oso era nabarmenean eta seko, gelditi utzi du lagun beldurtia. Atea erdi

zabalik ikusirik, aurrera egin dute atrebentzia osoarekin, ate-joka denbora galdu barik.

Egun on serio batekin hartu ditu alkateak, bekozko ilun, hitzordurik ez eta ezbehar larriren bat iragartzera baletoz bezala. Mesedez esertzeko eskatu die, eta sartu berriek obeditu.

Egunaren argitasuna aitatzen du alkateak bilera inprobisatua abian jartzeko eta, bide batez, kanpoko epeltasuna barruko hizketaldiari laguntzeko intentzioarekin.

“*Zer dela eta zuek hemen*”, galdera egin ondoren, bisitari ausartenak ekin dio total antzean aurrea, baina tinko gero: “*Begira, nola esan...*” - eta segidan ausart- “*kalean gure kontrako jarrera itsusiak ikusten ari garelako etorri gara berorren aurrean salaketa jartzera. Ez gara errudun. Txakur-metak kalean jaso barik geratzen badira bazterrek eta jendea zikintzen, ez da gure errua, ez*”.

“*Txakur-metak diozuenean, zer esan nahi duzue?, ez dut ongi ulertzen*”, alkateak.

Lagun berritsuenak belarriak tentetu eta agudo erantzuten dio lotsatuaren muturra jarriz: “*txakur-metak, zakur-kakak, alegia; hau da bisita honen arrazoia, alkate. Begirada ilunak eta birao itsusiak entzuten aspertu gara eta*

*ezer larririk gertatu baino lehen berorregana etorri gara, irtenbide duin baten bila, alkate*”.

Alkatea, dagoeneko, jabetzen hasia da aurrean dituen solaskideak pisuzko arrazoiak jarri dituztela mahai gainean eta premiazko neurriren bat iragarri beharko duela. Seriotasun itxurak alboratu, zutitu eta aurreratzen da alkategoko zoru marmoldunean eserita dauden bi lagunengana. Makurtu eta eskua luzatzen die. “*Beno lagunak, ondo dago, premiazko bando azkar bat aterako dut non zuen kulpaeza frogatua geratuko den eta zuen jabeena onartua. Beraiek ordainduko dute isuna zuen metak jaso ezearan*”.

Lagun biak, pozarren, altxatu egiten dira eta saltoka hartzen dute berri ona. Agurtu baino lehen, alkateak zein izen dute galdetzen die.

Ni “*Lagun*” nauzu.

Eta ni “*Txiki*”, ttau-ttau, ttau-ttau...!

## 68ko maiatzak 50 urte

Aimar Urbesalgo

50 urte pasa dira Pariseko “68ko maiatza” bezala ezagutzen den altxamendutik eta tsunami sozial hura munduan barna zabaldu zenetik:

### ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK

Aran Hernandez

Zure ETXEA egunentzako gubarnuko inbertsio bat ezalitz bere salmenta edota alkatari erabakia

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com

Mexiko DF, Pekin, Buenos Aires, Caracas, Washington, etab. Hori bai kasualitatea, protestak hasi eta bi egunetara, maiatzaren 5a, Carl Marxen jaiotzaren 150. urteurrena izan zen; hori bai paradoxa, mundu mailako lehen prozesu iraultzaile honek marxen tesien kontra egin zuen, hein batean.

Izaera antikapitalista izan zuen mugimenduak gurean, izaera antikomunista berriz bloke sobietikoan. Tradizio iraultzaile modernoaren kuestionamendua suposatu zuen eta ezaugarri libertario eta horizontalak izan zituen botere gune tradizionalen kontrakoa izan zen: Estatua, ejertzittoa, Eliza, Sindikatua eta Familia. Belaunaldi zaharren moral eta ohituren kateen apurketa ekarri zuen; zenbat gurasori kendu ote zieten loa beraien seme-alaben aldrebeskeriek!

Orduko ametsak ez ziren egituratu termino ekonomikoetan (kontrara, orduan hasi baitzen neoliberalismoa), baina kulturaren eragin handia izan zuen (ideia berriak, mugimendu berriak, etab.). Feminismoa eta ekologismoa horren ondoren indartu ziren, Vietnamgo gerrak pazifismoari indarra eman zion, Pantera Beltzak Estatu

Batuetan, suspertze politiko eta kulturala Euskal Herrian, talde armatuen zabalkundea non-nahi, LGTBI mugimenduaren sorrera, Askapenaren Teologia kristautasunaren baitan, teknologiarik kritika eta ekialdeko espiritualitateen inportazioa (budismoa, yoga, taoismoa, auto-ezagutza, etab.), besteak beste.

Oñatin ere gurekin zaudete oraindik, jubilatuta jada, garai haietan erreboltoso ibili zinetenok. Gaur egungo egoera ulertzeko ezinbesteko garaia delako antolatu dugu autoformakuntza gaztetxean, tertulian zerbait gehiago ikasteko. Maiatzaren 9an izango da, 18:30etan.

## OHARRAK ETA DEIALDIAK

### 1962eko IRAILETIK 1962ko ABENDURA BITARTEAN JAIOTAKOEN KINTTADA

Ekainaren 16an egingo dute kinttadia 81eko kinttoek. Araotz auzoko Saloian egingo dute bazkaria. Batzuek oinez joateko asmoa dute, Urrexolan salda hartu eta kanaletik buelta. Animo! Izena emateko, deitu **659 556 475** (Angel) zenbakira.

### 'HERRI URRATS'-era JOATEKO AUTOBUSA

Maiatzaren 13an ospatuko den HERRI URRATS jaira joateko autobusa antolatuko du Txantxiku ikastolak, gutxieneko izen-ematea lortzen bada. Maiatzaren 4a da izena emateko azken eguna, [txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus) helbidetan edo 943781204 zenbakian.



**Musikarekin hasi, hezi eta bizi...**

- 2-3 urtetik aurrera hezkuntza musikala
- Kalitatezko musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...

**Matrikula epea: maiatzaren 21etik - 31ra**  
\* web orritik egiteko aukera egongo da.

**JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA**  
J. Moius Kalea 26  
20560 Oñati

**idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com**  
[www.jazpiazumusikaeskola.com](http://www.jazpiazumusikaeskola.com)

**Tel.: 943 78 31 74**



# Ludoteka ibiltaria

## - Arazerixan -

**L**kasturte honetan, Ludoteka ibiltaria egiten jarraitu dugu. Ekimen honen helburua, ludoteka herriko beste auzo batzuetara hurbiltzea da. Horrela, alde batetik 2-9 urte bitarteko haurrei lau zapatuz, euskarazko aisialdi hezitzaile bat eskaintzen diegu eta bestetik, ludotekan lantzen ditugun oinarri pedagogikoak herrian zabaltzeko aukera ematen digu.

Azken urteetan ludotekan haurren parte-hartzea bultzatu nahi izan dugu, izan ere, haurrei autonomia emateko pausu bat da. Aurten ludoteka ibiltarian 3 urte hauetan haurrekin, egin izan ditugun ekintzetatik, gehien gustatu zaizkienak ezagutu nahi izan ditugu, eta baita ere, beraien nahiak jakin. Horretarako, lehenengo bozketa txiki bat egin genuen, horretaz gain proposamenak idazteko edota marrazteko aukera ere izan zuten. Horretaz gain, ludoteka ibiltarian beti jolas librerako espazio txiki bat izan dugu, eta bertan haurrak beraien kabuz jolasteko aukera izan dute.



Hala ere, jolas libre eta espontaneoari denbora gehiago utzi nahian, eta naturak hezkuntzan duen garrantzia kontuan hartuz, arten lehenengo aldiz San Martinek eskaintzen duen espazio naturala aprobeztatu nahi izan dugu. Ludotekan haurrek naturarekin duten harremana indartu behar dugula uste dugulako. Egun, gero eta kontaktu gutxiago eta azalekoagoa dugu naturarekin, eta honek gure ustez eragin kaltegarriak ditu haurrengan eta familiengan. Hori dela eta, natur gune bat sartu dugu gure ludoteka ibiltarian. Arrakasta oso handia izan zuen, eta haurrak oso gustura ibili ziren lokatzarekin, belarrarekin, zuhaitzekin, kuxkurrekin eta abarrekin jolasten. Bide horretan sakontzea dugu helburu.

### UDALEKU IREKIAK ETA ARTE UDALEKUAK.

Udaleku irekien izen emate epea bukatu den honetan, zenbaki batzuk eta hausnarketa txiki bat konpartitzeko moduan gaude: aurtengo izenematean, Udaleku irekietan adibidez 570 ume baino gehiagok eman baitu izena, inoiz izan dugun kopururik altuena. Arte Udalekuetan ere 30 izenemate egon dira. Guzti hau kudeatzeak sekulako esfortzua eskatzen dio Oñatiko Udalarari, horretarako osora 66 begirale kontratatu beharko baititu hilabetez, horrek suposatzen duen guztiarekin. Guzti honengatik poztea baino ez zaigu geratzen, baita eskerrak ematea gurengan jartzen duzun konfiantzarengatik!



### ABUZTUKO UDALEKU ITXIAK, 2001 ETA 2002AN JAIOTAKOENTZAT.

Gai honekin aurreko kontzejun argitaratutakoa erabat zuzena ez dela, eta honakoa dela zuzena adierazi nahi dugu: Oñatiko Udaleko haur eta Gazteria sailak, Betti-Gotti elkartearen bitartez, Zuhatzan eta Val de Aranen izango diren Udaleku itxiak bideratzen ari dela gogoratu nahi dizuegu. Abuztuaren 12tik 26ra izango dira (15 egun). Izenematea berez 550 eurokoa da, baina Oñatiko Udalak gazteko 200 euroko diru-laguntza emango dio elkarteari, beraz gazte bakoitzari 350 euro besterik ez zaio irtengo Udaleku paregabe hauek disfrutatzeko aukera. Kopuru horren barruan 15 egunetako gastu guztiak barne daude.

## MAIATZEAN...

**SAN ANTON PLAZATXOAN: [5]** Ludoteka ibiltaria. **GAZTELEKUAN: [12]** Udalekuetako begiraleentzako formazio saioa (9:00-14:00 eta 15:00-18:00). **[24]** Kontzertua: Non Servium + John Dealer and de coconuts (sarrera 8€). **TOPALEKUAN: [12]** Gaztelekuko udako bidaiako boletuen zozketa. **SOTOAN: [20]** Mini diskoa + aurpegiak margotzea. **KUBOAN: 5 eta 6.** mailakoekin bile-rak udako planak antolatzeke (data zehazteke).



Amaia  
Aranzeta



## Artearen estetika

**I**dazle eta pentsalari askok hitzegin dute artea eta Artearen estetikari buruz mendeetan. Aintzinako Erromatik datorkigun *Ars* artea, edo grekeraz *Techné*, kritika ugariren mira izan da beti. Modernitatean aurkitzen dugu lehenbiziz estetikaren kontzeptua, hau da, arteak bere funtsean duen edertasuna sortzeko gaitasuna deskribatzeko. Baina, denboran aurrera egiten badugu, XX.en mendean ere, T. W. Adorno edo Horkheimer bezalako teorikoek gai bera jorratzen zutela ikus dezakegu.

Arteak perfil asko ditu. Ez soilik este-tikaren harira baina, arte mota ezberdinek sortu ditzaketen sentsazio, harrera eta emozioei erreparatzen badiegu. Arterik ez balitza, ezin genukeen munduan bizitzarik aurkituko, modu batera edo bestera, bizitza bera ere, arte mota bat delako. Horregatik daude hainbat artista ezberdin munduan, norberak bizitzarekiko bere ikuspegi partikularra helaraziz. Musikariak, idazleak, aktoreak, pailazoak... "artista" etiketa daramaten biztanleriaren portzentaia handi bat dira, baina maiz, ez dute behar hainako arretarik jasotzen. Gizarteak nahiago du -Marxek zioen bezala- erosogari diren gauza materialetan irauli gauzen baliagarritasuna goratuz, bizitzaren estetika sortzen duten pertsonengan fidatzea baino. Hau dela eta, artistak gose dira diruaren xarmaz elikatzen den gizarte honetan.

Eta, agian, ez digutelako txikitatik irakatsi artea eta artistak baloratzen dabil mundua hankaz-gora. Gai honetan zerikusi asko izan du zientzia eta teknologiaren aurrerakuntzak. Gaur eguneko munduan artea eta artearen pareko diren alorrak gutxiesten dira, eta gabezia honek, kontzientzia moralean eragin digu. Ume eta nerabe askok ez dute Shakespeare ezagutzen, baina bai *youtube*-ko "Elrubius" edo "El Taxi" abestiaren egilea.

Juankar  
Olaeta



## Esklabo Alaiak ala Zapalkuntzatik Askatasunera

"...Iparraldeko euskaldunekin hartu-emunak sendoketia (...) Izan be, antxiña eta Arantzazuren bittartez, oñatiarrak eta lapurtarrak sarritan ikusten eben alkar.(...) Gerora be, (...) Ainhoako muiño batian jaso otsain elizatzua Arantzazuko ama birjiñari..." (Axular-en Hiztegia. Jerardo Elortzaren sarrera, 8-9 orr.; Laixan Euskara Elkarte. Oñati 2007)

**Hartu-emanak?** Euskal Herria Euskararen Herria dela ez ahazteko, " ... *anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian...*"; Euskararen Herriak bere Lurraldea baduela gomutatze, "*euskaldunen etxea*", "*euskaldunik baizen etzen lekhu*"; gogoan izateko horren gabezia "*euskaldunek berek (ere) dute(la) falta*"; estekaren estekaz, gogoz, pentsamenduz eta hizkuntzaz ere "*auzokoe*" bilur iraunkorrez esklabo (alaiak?) bihur ez gaitzaten, guri irentsi, sinetsi eta esanarazteraino, *natural*, hegoaldekook "hemen iparrean, euria eta hotza", eta iparraldeko "hemen hegoan epel eta eguzkitsu-oporleku": norbera ere sarri(egi) harritu da, txertoa hartuta duelako salbu-ustean, halakoak akritikoki norberarengan antzematean: Espainia ahoskatze gogorik ez eta, 'Estatua' beste barik diogunean kasu, absolutuki, estatu-erreferentzialtasun osoa Espainiari dohan oparitutuz ... edota Frantziari iparraldean; sendabelar *naturala* izan daitekeelako burukateak askatzeko, aske eta herri-kraziaz ez garela bizi fite-argi ikusteko; oroitzeko zure izana, nortasuna, existentzia ukatu egiten dizkizunak, lehenengo kateaz/ezpataz/burdinaz mendean hartu eta zapaldu egin nahiko zaituela, baina bere benetako garaipena eta zure desagarpn-zoria, zure egitura-mentalaz eta horri dagokion hizkeraz jabetu egiten denean ate joka duzula: orduan ez du biolentzia gehiagorik beharko, birus hedakor baten moduan, erna/bur-muineraino biolatu egin zaituelako, zuk horixe merezi, egoera naturala dela eta horrela ondoantzean berari esker ezker-eskuin bizi zaitzkeela (on)hartzerraino

Buru aska/freska-garri bi: **Zapalkuntzatik Askatasunera**. Gure Berriak, 2015; **Esklabo Alaiak**. Asisko Urmeneta. 2017.

 **ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela


Mobxon Kalea 5 behea  
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LERRIAK, LUZ FLOKANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DI SERBITZUILE ETA MONTATZMILA  
SUKALDEAK, KOMAK eta ASKOZ GELUKO  
KANTIA 12 B 4 esk. - ZUGO OAZI - OPILENDA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77



# ELTZIAREN nortasuna irudikatzeko murala

» Eltziako fatxada osoa (2.200m<sup>2</sup>) margotuko dute eraikin barruan eman den eraldaketa islatzeko

Nerea Zubia (zinegotzia), Luis Olaso ('Arte y Muralismo'), Gaizka Garfalsoro (Eltziako koordinakundea) eta Onintza Andres (udaleko Partaidetza teknikaria), muralaren diseinua aurkezten

Goiko irudiak erakusten duen moduan, itxura koloretsua eta bizia izango du Eltzia eraikinak laster.

Barrualdea egokitzeko lanak amaituta, garai batean ETEOko ikasgelak hartu zituen eraikinak bizitza berria hartu du orain, kultura, arte eta sormenerako gune bihurtuta, besteak beste.

Eta proiektua borobiltzeko, kanpoaldeko itxura ere berritu eta gaurkotu beharra zegoela erabaki du udal gobernu taldeak. "Barruan eman den eraldaketa eta sortu diren dinamika berriei fatxadan ikusgarritasuna eman nahi diegu" azaldu du Nerea Zubia, udaleko Partaidetza batzordeko buruak.

Enpresa ezberdinei aurrekontuak eskatu ostean, tamaina handiko muralak margotzen aditua den *Arte y Muralismo* enpresa bilbotarra kontratatu du udalak Eltziako aurrealdea itxura-berritzeko. "Murala margotzen hasi aurretik, tratamendu berezia emango diegu hormei, muralaren bizi-iraupen minimo bat bermatzeko" azaldu du *Arte y Muralismo* enpresako Luis Olasok. "Hezetasunaren kontrako produktu bat ematen diogu hormari, eta pinturek ere estalki akrilikoa dute izpi ultramoreetatik babesteko. Horrela, hamar urterako bizia bermatzen dugu, gutxienez".

**ELKARLANAREN EMAITZA**  
Autogestioa eta elkarlana dira,

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Urmeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



besteak beste, Eltzia proiektuaren oinarrizko baloreak. Horregatik, muralaren diseinua ere Eltzia erabiltzaileekin adostea izan da udalak enpresari ezarritako baldintzetako bat. Eta hala egin dute. “Enpresak zazpi bozeto aurkeztu zizkigun, eta eltzekideen artean adostu dugu azken irudia” azaldu du Eltzia koordinakundeko Gaizka Garfalsorok.

“Elementu figuratiboetatik ihes egin nahi izan dugu” adierazi du Olasok; “proiektu dinamikoa eta bizia da Eltzia, aldatuz eta egokituz joan daitekeena; beraz, irudi zehatzak eginez gero, berehala zaharkituta geratzeko arriskua dago. Horregatik, nahiago izan dugu irudi geometrikoak (antolakuntza eta elkar-ekintza bezalako kontzeptuei lotuak) eta organiko edo abstraktuak (dinamismoa eta aniztasuna) erabili”. Eltzia logo-tipoaren koloreak erabili dituzte.

Guztira 2.200m<sup>2</sup>ko azalera izango du muralak, eta 1.000 litro pintura baino gehiago beharko dituztela azaldu du Olasok. Hiru fasetan egingo dituzte lanak eta, eguraldiaren arabera, bi edo hiru hilabetetan amaitzea espero dute. Margotze lanetarako herriko gazte langabetuak kontratatuko dituzte.

Eltzia eraikina margotzeko lanek (hormei eman beharreko tratamendua barne) 60.000 euroko aurrekontua dute.

## Lokal berria estreinatu du Lagun Lekuk



Inaugurazio ekitaldiko une bat.



Zuzendaritza taldeko kideak.



Lagun Leku elkartearen lokala

Lagun Leku erretiratuen elkarteak apirilaren 20an inauguratu zuen egoitza berria Eltzia eraikineko solairu nagusian.

Ia 70m<sup>2</sup>-ko lokal argitsua da (irteera zuzena dauka klaustruko berdegunera) eta bi gune bereiztu dituzte bertan: mahai-jokoetan aritzeko gunea, eta lasai egoteko beste txoko bat, butaka eta guzti. Telebista eta ordenagailu bana ere badaude.

Eltziako obrak direla eta, urte eta erdi egon dira lokal barik, eta gogotsu daude etapa berriari ekiteko. “Herriko jubilatuek batu, aktibatu eta parte hartzea sustatzea da gure helburua, eta asmo horrekin askotariko ekitaldiak antolatuko ditugu: hitzaldiak, tailerrak, pelikulak, bingo saioak, ibilaldiak...”. **Maiatzaren 8 eta 29an** bingo saioak (17:00 -19:00) egongo dira, eta hilaren 22an (17:30) Amaia Diaz de Monasteriogurenen hitzaldia (*Udaberria iritsi da, lagundu gorputzari loratzen*)

Lagun Lekuren lokala egunero dago zabalik 17:00etatik 20:00etara.



# MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



## 'Harittu' prozesua aurkeztu du Oñatiko EH Bilduk

EH Bilduren komunitatea osatzea eta sendotzea, eta Oñatirentzako etorkizuneko ortzi-muga zehaztea. Horixe da Oñatiko EH Bilduk aurkeztu duen *Harittu* proiektuaren helburua.

EH Bilduk oso positiboki baloratzen du 2010ean abian jarri zuen estrategia berria, indar metaketan oinarrituta. "Oñatin garai politiko berri bat irekitzeko eta aldaketa instituzionala gauzatzeko gai izan ginen 2011n".

Baina zazpi urteko ibilbidea egin ostean, urrats berria emateko unea dela uste du koalizio abertzaleak. "Oñatiko EH Bildu berritzeko eta parte hartzaileagoa, irekiagoa eta inklusiboagoa izateko oinarriak berritzeko garaia iritsi da". Helburu hori du *Harittu* egitasmoak.

Pertsona guztien eskubide sozial, ekonomiko politiko, kultural eta hizkuntzari lotutakoak bermatzeko tresna izan nahi du EH Bilduk, eta helburu hori lortzeko aktiboki parte hartu nahi duten herritarrei irekitako gune eta modu berriak eskaintzera datorren egitasmoa da *Harittu*. "Ideia eta proiektu berriak ekarriko dituzten pertsona eta sektore independenteak barnean hartzen dituen subjektu politikoa izatera igaro nahi dugu".

Hiru lan ildo izango ditu *Harittu*-k: 'Herritarrek Erdigunean', 'Aldaketan Sakondu' eta 'Alternatibaren Erakuntza'. Bederatzi lantalde antolatu dituzte, eta helburua da ekaina bitartean herriko diagnostikoa egitea, eta ondoren, irailetik urte amaiera bitartean Herriko Plangintza lantzea.



Lokal berria inauguratu du EH Bilduk Kale Barriako 9 zenbakian

**EH BILGUNEA.** *Harittu* proiektua aurkeztearekin batera, lokal berria inauguratu du Oñatiko EH Bilduk Kale Barriako 9 zenbakian. Herriko erreferentzia gune izatea nahi dutela adierazi dute. "Ideiak partekatzeko, eztabaidatzeko, elkar ezagutzeko, elkarrengandik ikasteko... toki izateko bokazioarekin jaio da gune hau. Beraz, feminista, langabetu, euskaltzale, ikasle, geldigor, ekologista, gazte, pentsionista... Senti zaitze zuen etxean!"

### Tren Ibiltaria ekimena jarriko du abian Urgain-Errekalde eskolak

Eskolara oinez joateko ohitura sustatu asmoz, Tren Ibiltaria ekimena jarriko dute abian Urgain-Errekalde eskolan maiatzaren 7tik 18ra. Hauek izango dira trenera igotzeko gune eta orduak: Eltzia (8:40), San Lorentzoko tunela (8:40), Kanpantxo (8:35), Bidebarrieta (8:40), San Martin zubia (8:40) eta kultur etxea (8:50). Animatu!

**URGAIN EGUNA.** Maiatzaren 19an Urgain Eguna ospatuko dute egitarau honekin: 11:30 Batukada Institutotik abiatuta; 14:00 Bazkaria; 15:30 Ikasle-entzako antzerkia, eta puzgarriak Inisutuo aurrean herriko ume guztientzat

### Pirritx, Porrotx eta Marimotots Ikastolaren Eguna ospatzeko

Txantxiku ikastolaren eguna ospatzeko Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zoek 'Borobilean' ikuskizuna eskainiko dute maiatzaren 5ean kiroldegian. Bi saio egongo dira (16:30 / 18:30). Ikastolan bertan eta Txokolateixan daude salgai sarrerak.

Horrez gain, maiatzaren 4 eta 5ean Bidezko Merkataritza denda jarriko dute ikastolako aretoan, eta bertan batutako dirua Nigua-ra bidaliko da.

Maiatzaren 4an Ikasleen Eguna ospatuko dute eta ekitaldi ugariarekin, eta hilaren 5ean (13:00) otamena egongo da ikastolako komunitate osoarentzat.

Gure beharra baduzu,  
ondo-ondoan gaituzu.  
**Arrasaten.**

Hain ondo zaindu nahi zaituguncz, Arrasaten bertan ere artatuko zaitu Zuatzu klinikako espezialista-taldeak, 20 urtetik gorako esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidca, 4 (bajo)  
20500 Mondragón  
943 792 018



[www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)

| MAROKO |

# Motorzaleen paradisu

Beti da gomendagarria Marokora bidaiatzea, eta are gehiago motorrean bada. Basamortuko dunak, mendi aldeko errepide estu eta bihurriak, kostaldeko hondartza amaigabeak... Bertatik itzuli berriak dira Jon Losada eta Michael Jiménez, herrialde osoari buelta eman ostean.

**E**z da lehen aldia Afrikako herrialde hau motorrean bisitatzen dutena. Jonentzat hirugarrena izan da, eta Michaelen kasuan bigarrena. “Errepidetik kanpora, pistetan ibiltzea gustatzen bazaizu, ez dago Maroko bezalako parajerik hemen inguruan. Basamortuko dunetan ibiltzea izaten da motorzale askoren ametsa. Gure ‘Dakar’ partikularra egiteko aukera ematen digu. Gainera, paraje zoragarriak daude, kontrastez beteak, eta horregatik da hain erakargarria” azaldu digute motorzale oñatiarrek.

Hare artean ibiltzea zen aurtengo helburu nagusia. Horregatik, Ceutan abiatu eta Saharako basamorturako sarrera den *Merzouga* herrira jo zuten zuzenean, pista alternatiboak erabiliz, gehienetan. Dunetan ibil-



Michael eta Jon Marokoko familia batekin afaltzen.

tzeaz gain, Merzougan jokutzen ari zen Dakar Serietako rallya ikusteko aukera izan zuten. Gero, atlantiar kostaldetik egin zuten iparralderako bidea,

mapan ikus daitekeen moduan. Guztira 3.500 kilometro egin dituzte, hamar etapatan. Arazo mekanikoren bat izan dute, beroaren ondorioz batez ere, baina hori ere abentura barruan sartzen da, eta aurrez planifikatutako moduan osatu ahal izan dute ibilbidea.

**ELKARTASUNA KEINUA**  
Motor gainean gozatzeaz gain, inguruak ezagutu eta bertako bizilagunekin bizi-penak partekatzeo aukera ere izan dute bidaian zehar. “Hegoaldean, bereziki, oso baliabide gutxirekin bizi da jendea, eta, hala ere, oso eskuzabalak dira, eta beti daude laguntzeko prest. Horregatik, saiatzeko gara hango umeentzako erropak eramaten maletan, eta oso polita izaten da umeen aurpegi alaiak ikustea”.

Nekatuta iritsi dira etxera, baina laster hasiko dira hurrengo abentura prestatzen. Motorzale amorratuak dira, biak ala biak, eta lehendik ere bidaia ugari egindakoak dira. Jonek, adibidez Oñati eta Auschwitz (Polonia) arteko joan-etorria egin zuten, Europa osoa zeharkatuz; Corcegan ere ibilia da, eta Pirinioak ere zeharkatu ditu, besteak beste. Michael ere ez da geldi egotekoa; Espainiar penintsulari buelta osoa emateaz gain Frantzia aldean ere ibilaldi ugari egindakoa da, eta lehiatzen ere ibilia da Supermotard modalitatean, Euskadiko txapelketa birritan irabaziz.

Kontzeju | 30 | pitxik

## ETAPAK

1. Ceuta - Taza
2. Taza - Talsint
3. Talsint - Merzouga
4. Merzouga - Lac Maier
5. Lac Maier - M'Hamid
6. M'Hamid - Tissint
7. Tissint - Tan Tan
8. Tan Tan - Esauira
9. Esauira - Marrakech
10. Marrakech - Ceuta



## Emakumezkoak Korpus bezperako lasterketara itzuliko dira

Ekainaren 2an jokatu da Korpus bezperako 10 kilometroko lasterketa. Eta Antxintxiketan kirol elkarteak jakinarazi duenez, emakumezkoen itzulera izango da aurtengo nobedade nagusia. Zortzi urteko hutsunearen ostean, gizakume zein emakumeen probak ikusi ahal izango dira, Oñatiko erdiguneko kaleetan barrena.



2010ean egin zen azkenekoz emakumezkoen proba.

Azken ordura arte ez dira korrikalari zerrendak baieztatuko, baina probaren filosofiari jarraituz, Euskal Herriko espezialista garrantzitsuenak ekartzen saiatuko dira antolatzaileak. Era berean, herriko ordezkarien aldeko apostua ere egingo dutela baieztatu dute eta okerrik ezean, bi probetan lehiatuko dira txantxikuarrak. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da emakumezkoen lasterketa eta ordubete geroago, 19:00etan, emango zaio hasiera gizonezkoenari. Eguerdiko 12:00etan, gaztetzkoendako probak antolatuko dira plazan bertan.

### ► FUTBOLA

## Oñatiarrak Federazioaren mendeurreneko ospakizunean



Gipuzkoako Futbol Federazioak 100 urte bete berri ditu. Apirileko azken astean ospatu zuten mendeurrena Donostiako Miramar jauregian eta goiko argazkian ikus daitekeenez, Aloña Mendik ordezkari zabalaren izenaren berrantolaketa izan zuen bertan. Jabier Azpiatzuk, Aloñako zazpi presidente ohi izan zituen alboan: Carlos Anduaga, Jabier Guridi, Fernando Letamendi, Angel Elgero, Ignacio Madina, Ramon Idigoras eta Fernando Mendiguren.

### ► MENDIA

## Goñi eta Azkorbebeitia azkarrenak Aloñako Igoeran

Imanol Goñi (2:00:09) hirugarren urtez jarraian, eta Oihana Azkorbebeitia (2:28:11) izan dira XIV. Aloñako Igoerako garaileak. Goñik gainera, Aloñako gurutzeko errekorra hautsi zuen (48:01) eta helmugan errekorretik bost segundora soilik gelditu zen. Oñatiarrei dagokienean, Axier Alonso (2:10:56) eta Saioa Arkonada (2:53:02) izan ziren onenak, hurrenez hurren, zortzigarren eta hamargarren postuak eskuratuta. 300 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten lasterketan.



Goñi eta Azkorbebeitia aurtengo garaileak eta Arkonada eta Alonso, herriko azkarrenak. Argazkiak: Eider Quintas.

### ► PILOTA

## OÑATI-BIDANIA GOIATZ Herriartekoan

Pasaden astean egin zen Herriarteko Txapelketako zozketa. Aurtengoa 51. ekitaldia izango da eta 18 herrik parte hartuko dute. Maiatzaren 20 eta 27an jokatu dituzte lehenengo kanporaketa partiduak, eta Bidania Goiatz izango da Oñatiko taldearen lehen aurkaria.

### Berria Txapelketa

Bestalde, Oñatiko pilotariak Berria txapelketan ere badabiltza. Geroz eta izen handiagoa hartzen ari da eta lehendabizikoz gonbidatu dituzte lehiara. Apirilaren 22an hasi zen eta ekainaren 23an amaituko da.

### ► PLATER-TIROA

## Oñati txapeldun Herriartekoan



Azken bost urteetan lau aldiz irabazi du Oñatik, herri arteko plater-tiro txapelketa. 4 jardunaldiren ostean, Txopetuan erabaki zen garailea eta taldekako sariaz gain, bana-kakoan ere, Javi Vera taldekidea izan zen onena.

### ► MENDI IRTEERA

## IBAÑETA /maiatzak 20

Aloña Mendik maiatzeko antolatu duen irteera berezia da. 'Memoria Lekuak' jardunaldien baitan Orbaizeta inguruan egingo da ibilaldia, Ibañetatik Urkulu mendira. 'Orreaga, erresuma baten sorrera' lelopean, Nabarraldeko Beñi Agirrek gidatutako ibilaldia izango da. Irteera: 07:00etan.

# Oñatiren aldeko lana eta eskuzabaltasuna eskertzeko OMENALDIA

## Jerardo Elortzaren omenezko kultur astea antolatu du herritar talde batek, udalaren babesarekin

Ekainaren 1etik 9ra Jerardo Elortzaren omenezko kultur astea egingo da Oñatin. Euskaltzale eta historialari oñatiarrek herriaren alde egindako lan oparoa aitortu, eskertu eta ezagutzera ematea da omenaldiaren helburua.

Guraso eta arbasoengandik jasotako bizimodua, historia, ohiturak eta hizkuntzaren erroak ikertzen eta zabaltzen lan handia egin du Elortzak. “Jakituria handiko pertsona izateaz gain, umila, apala eta eskuzabala ere bada Jerardo. Eskatu dion edonori laguntzeko prest egon da beti eta, beraz, eskuzabaltasun hori eskertzeko ordua iritsi da. Herriari eman dion guztia eskertzeko garaia da”, adierazi zuen Kepa Elortzak, omenaldia prestatzen ari den taldeko ordezkariak.

Omenaldia Jerardo Elortzari eskainita egingo da, baina, aldi berean, 60-70 hamarkadetan euskal kultura lozorrotik atera eta berpizten ahalegindu ziren herritarrak ere gogoan izango dira kultur astean zehar.

### UDALAREN BABESA

Herritar talde zabal bat ari da omenaldia prestatzen, baina udalak ere erabateko babes eman dio ekimenari. “Artxibo ibiltari bat da Jerardo. Udalak ere askotan jotzen du beregana kontsultak egitera. Herriko ondarearen eta euskal kultura-



Mikel Biain alkatea eta Kepa Elortza, antolatzailea, omenaldi ekitaldiaren berri ematen

ren alde izugarrizko lana egin du, eta ondo merezitako omenaldia da, zalantza barik” adierazi zuen Mikel Biain alkateak. Gainera, Jerardo Elortzaren izena eramango duen liburu bilduma bat eratzeko asmoa dutela ere aurreratu zuen alkateak, udalaren izenean. Jerardoren ezagutzatik abiatuta, herriko gaiei buruzko bilduma bat osatzea da asmoa.



### BAZKARIRAKO TXARTELAK

Jerardo Elortzaren omenaldiko bazkarirako txartelak Txokolateixan egingo dira salgai ekainaren 7rarte. Etxe Aundi jatetxerako joan-etorria autobusez egin nahi dutenek txartelean agertzen den zenbakira deitu behar dute, **ekainaren 4a** baino lehen.



### EGITARUA

**Ekainak 1-9:** Jerardo Elortzari buruzko **erakusketa** kultur etxean (18:00-20:00).

**Ekainak 4: Hitzaldia:** ‘Jerardo Elortza egile’. Hizlaria: Juan Martin Elexpuru. Idoia Etxeberriak prestatu duen bideo-biografia ikusteko aukera egongo da, eta Pablo Anduaga agustiñuak ere hitz egingo du, euren komunitadiaren eta Jerardo Elortzaren arteko harremanen inguruan. Santa Ana antzokian, 19:00

**Ekainak 6: Mahai-ingurua.** ‘1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkundea, garaiko lekukoen esku-tik’. Jerardo Elortzarekin batera, Euxebi Osa (Ikastola), Carmenchu Balzategi (Oñatz alkartia) eta Juantxo Madariaga (Udal liburutegiko batzordea) ariko dira. Kultur etxean, 19:00

**Ekainak 7: Filmen emanaldia.** Jerardo Elortzak parte hartutako filmak (‘Gabon dut Anuntzio’, Liñugintza’, Aita Lasa, artzainen artzain’ eta ‘Lope de Agirre’) ikusgai, Agustin Goenagak eta Kepa Elortzak aurkeztuta. Kultur etxean, 19:00

**Ekainak 9: Omenaldi** ekitaldia. Santa Ana antzokian, 12:00. Ostein bazkaria Etxe Aundi jatetxean.

**Ekainak 17: Ibilaldia** Araotz-Urrusula artean (Sandaili, makinetxea...) Jerardo Elortza eta Imanol Biain gidari direla. Araozgo saloian, 08:30.



# AIZKORRI-ARATZ NATUR PARKEA EZAGUTZEKO IRTEERA GIDATUAK



Urtero bezala, udaberrian sartzearekin batera, Aizkorri-Aratz natur parkean barrena egiten diren gidatutako mendi irteera sortari hasiera eman zaio. Apirilaren 15ean egin zen aurrenekoa, eta urrira bitartean (abuztuan izan ezik) hilero egingo da ibilaldi bana.

Arantzazuko Adiskideek eta Arantzazuko Parketxeak antolatzen dituzten irteera hauen helburua da, Aizkorri-Aratz natur parkeko bazterrak ezagutzera ematea, bere baitan duten aberastatsuna (paisaia, etnografia, kultura...) balioan jarritz. Publiko orokorrari zuzendutako ibilaldiak dira, 4-5 orduko iraupenarekin, gutxi gora behera.

Hurrengo irteera maiatzaren 13an izango da. Iturrigorriko basoan barrena abiatu eta Bellotzatik buelta itzuliko dira Parketxera.

DATA	MENDI-IBILALDIA	GAI TEMATIKOA
> Apirilak 15	Biozkornia	Unibertso karstikoa
> Maiatzak 13	Iturrigorri-Bellotza-Parketxea	Ezkutuko bidea eta Arantzazuko Parketxea
> Ekainak 16	Urkulu-Degurixa-Urkulu	Artzaintza
> Uztailak 21	Arantzazu-Aloña	Aloña ilunabarrean
> Irailak 16	Kortakogain-San Juan Artixa-Kortakogain	Kontrabandista bideak
> Urriak 21	Konfirmatzeko	Arkeologia/geologia natur parkean

Prezioa: 3€. Informazioa eta erreserbak: 943782894 / 699335183 / arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net



## udal komunikabideen

# BULETINA

asteroko boletin elektronikoa, udaleko nahiz herri mailako azken berrieekin, eta kultur agendarekin.

Ostiralero emailaz jaso nahi baduzu, egin harpidetza (dohainik) hemen:

<https://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/udal-komunikabideak/buletin-elektronikoaren-harpidetza>,  
edo sakatu ondoko QR kodean.



# AGENDA

# 05

MAIATZA



## ODOL ATERALDIA

> **MAIATZAK 4 / 17:00**  
Enpresagintza fakultatean,  
17:00etatik 19:00etara.

## HAUR LIBURUTEGIAN

> **MAIATZAK 24 - 25**  
PANPINEN II. PIJAMA FESTA



Udal liburutegiak antolatuta 3-5 urteko haurrei zuzenduta. Maiatzaren 24an haurrek panpina eraman behar dute liburutegira bertan gaua igaro dezan. Hurrengo egunean, panpina jaso eta gauze irakurri duen liburua eramango dute etxera Haur liburutegian.

## BERTSO SAIOA

### Oxigenoa Euskarari ekimenaren alde

> **MAIATZAK 19**  
**KIROLDEGIAN, 22:30**

Felipe Uriarte mendi gidaria buru dela, Euskal Herri zabaleko 15 gaztek eta 10 sherpek Himalaian egingo duten trekina da 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan' egitasmoa. Mendizaleatasuna, herrien arteko elkartasuna eta euskara mundura zabaltzea helburu duena. Eta ekimen horri laguntzeko bertso saioa egingo da hilaren 19an, goi mailako lau bertsolarirekin: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi. Gai jartzailea Amaia Agirre izango da. Sarrerak (10 €) Txokolateixan egongo dira salgai

## KONTZERTUAK

> **MAIATZAK 4 / 22:00**  
KIMERA / LA TXIRLA RECORDS  
Oñatiko Kimera eta La Polla Records-i tributua egiten dion Arrigorriagako La Txirla San Migel Txiki jaietan

> **MAIATZAK 6 / 13:30**  
AZKAITER PELOX TRIO



Rockabilly, soul, blues, funk doinuak (San Migel Txiki jaiek) Maiatzaren 1a plazan

> **MAIATZAK 6 / 19:00**  
JON BASAGUREN  
Jon Basaguren bakarlarari gasteiztarra San Anton plazan

> **MAIATZAK 11 / 22:00**  
ROCK METAL JAIALDIA  
Herriko talde ezberdinek joko dute Kasablankako jaietan

> **MAIATZAK 18 / 22:00**  
THE WC GROOVES



Andoingo The WC Grooves rock taldearen kontzertua Pako tabernan

> **EKAINAK 1 / 22:00**  
CRAP, LEGEZ KANPO eta DJ MOTHERFUCKER  
Musika estilo ezberdinez (punk, ska, elektronikoa...) Pako tabernan.

### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



## BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



## IPUIN KONTAKETA

> **MAIATZAK 31 / 18:00**

3-5 URTEKO HAURRENTZAT



Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 3-5 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Izaskun Mujikak. Hilaren 21etik aurrera banatuko dira gonbidapenak. Ikasturte honetako azken saioa izango da.

## AUTOFORMAKUNTZA

> **MAIATZAK 9 / 18:30**

'68ko MAIATZAK 50 URTE' 1968ko udaberriko iraultzari buruzko autoformakuntza saioa Antixena gaztetxean.

## HITZALDIA ETA AFARIA

> **MAIATZAK 21 ETA 24**

NEPAL

'Azoko' ekimenak antolatzen duen 'Herri bat, hainbat jatorri' ekimenaren baitan, Nepali buruzko hitzaldia (maiatzak 21) eta afaria (maiatzak 24) Antixena gaztetxean.

## AC/DC TALDEARI GORAZARRE

> **MAIATZAK 25**  
**Errekaldean, 21:30**

Urtero bezala, rock jaialdi bikaina antolatu du aurten ere Errekaldeko jai batzordeak. AC/DC australiarren triburu talde ofiziala den *Bon Scott Revival Show* ariko da bertan, zuzeneko ikusgarriarekin. Horrez gain, *Egurra ta Kitto*, *Sumisión City Blues* eta *Hor Konpon* oñatiarrak igoko dira oholtzara. Gaueko 21:30etan hasita, Errekaldeko plazan.

## HITZALDIA

> **MAIATZAK 15 / 17:30**

'PAUSOZ PAUSO SEGURU' (SEGURIDAD PASO A PASO) Pake Leku elkarteak antolatuta. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun saileko ordezkarien eskutik. Pake Leku.

leire  
ugarte  
ezpeleta  
arkitektoa

EIT-ak proiektuak erreformak

leireugarte@gmail.com  
tlf.635728507

## LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Gazte literatura

"Último verano en Tokio"



Liburua

"Ikigai. Los secretos de..."



Liburua

"Txoriak dira bederatzik"



Haur liburua

"Musu bat hartz txikiareztat"



Haur liburua

"Askaria parkean"



Liburua

"Contra el azúcar"

## MERKATU TXIKIA

- > **FISIOTERAPEUTA** bat behar dugu, fisioterapia eta osteopatia zentrorako. Bidali CVa: [eratu@euskalnet.net](mailto:eratu@euskalnet.net)
- > **ALOLAIRUA.** Bikote bat alokairu bila. 677 620 909.
- > **ESTALITAKO GARAJEA** alokatzen da Zubibarra kalean. Interesatuek deitu: 605 743 764
- > **PABILIOIA ALOKAGAI EDO SALGAI** Berezaio auzoan. Harremanetarako: 677 425 822..
- > **EMAKUMEA** naiz, erizain laguntzailea, eta pertsonak zaintzeko prest nago, etxean edo ospitalean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**

Maiatzak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24.

**IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**

Maiatzak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27. Ekainak 4 eta 5.

**GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**

Maiatzak 1, 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29. Ekainak 6 eta 7..

**JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**

Maiatzak 2, 3, 11, 12, 13, 21, 22, 30 eta 31. Ekainak 1, 2 eta 3.



not+vello

Argi pultsatu bidezko fotodepilazioa (IPL)

Depilazio inaktibitate sistemari inoiz ere eta bertan berriz.

Give SUN&SAFE teknologiarekin udaran ere fotodepilatu

**Olakua 1** ☎ 943716713

✉ onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

||||| OÑATI KALERIK KALE

# Kale Barria (VI)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

**J**oan den hilabeteko atalean esaten genuenez, Oñatiko Kale Barria eta inguruetakoko industria txiki, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuei eskainitako lantegi, denda, jatetxe-taberna eta bulegoak **ugariak eta askotarikoak** izan dira historian zehar. Azken 120 urteetakora mugatu garen arren, gure azaleko inbentario apal honetan **zenbait hutsune eta akats** daudela badakigu. Gaurkoan horietako batzuk estaltzen saiatuko gara, ahal den neurrian, beste era bateko lan zabalago eta zehatzagoan aztertu eta azaldu beharko direla konturatuta, noski.

Dena den, udalak sortu berri duen Selma Huxley bekari esker, arlo honetan emakumeek gure herrian burututako lanei buruz **Jone Arrazola eta Irati Garai antropologo oñatiar gazteek** prestatzen diharduten ikerketak **ikuspegi osatua eta sakona** eskuratuko digulakoan gaude. Hona, ba, besterik gabe, aurrekoan **hasitako zerrendaren behin behineko jarraipentxo**a. Orain hurrengoan bezala, plazatik gorako ibilbidea egingo dugu, orduko laburdurak erabiliz (KB / AK, etab.) kaleen izendapenei dagokienean.

## BAZARRAK

Juanitosa [KB 24-AK 11] / Txinatarra [KB 52].

## LURRINDEGIAK / DROGERIAK

Garmendia [KB 1] / Galartza ahizpak [KB 6] / Goiara [KB 21] / Aranburu [KB 47].

## ESTETIKA

Gutziz eder [KB 29].

## MERTZERIAK / LENTZERIAK

Urtaza, izebak eta ilobak [KB 14] / Begoña [AK 6] / Urzelai [KB 26] / Aizkirri, (Odriozola ahizpak) [AK 28] / Arregi [KB 57] / Ane [KB 54].

## ALTZARIAK

Idigoras [KB 9] / Arregi [KB 57].

## ELEKTRIZISTAK ETA ELEKTRAGAILUAK

Txintxurreta [KB 5]; Txantxiku [KB 20] / Astigarraga-Korkostegi [KB 37] / Ormazabal-Arregi; gero Felix Arregi eta semea [KB 53].

## MARGOAK

Gezalaga [KB 31] / Aranburu [KB 47].



Rodrigo Mercado Zuazola gotzaina.  
Antonio Valverde *Ayalde*-ren margolana

## MARKOGINTZA

Hegoia [RI 2].

## BARNE DISEINUA

Kaio [KB 18].

## BIZIKLETAK

Urresti anaiak, Baketxe kalean / Mendizabal [KB 39].

## KIROL-DENDAK

Agirre [KB 17] / Mendizabal [KB 39 eta AK 28].

## EHIZA ETA ARRANTZA

Fr. Txintxurreta eta semea, Goixenetxe [KB 28, AK aldetik] / Gregorio Guridi Torre [KB 36]

## LORA-DENDAK

Kimu [KB 17].

## BELAR-DENDAK

Ekhi-Eder [RI 2] / Goiztiri [RI 2]

## BURDINDEGIAK

Elorza [KB 17].

## ESTANKOAK

Altuna [KB 19].

**PAPER- ETA LIBURU-DENDAK**

Irizar [KB 4] / Altuna [KB 19] / Trikitx [KB 44].

**OPARIAK ETA JOSTAILUAK**

Lukasena [KB 2] / Juanitosa [KB 24-AK 11] / Trikitx [KB 44].

**FARMAZIAK**

Fermin Yurrita; Miren Galartza; Lorea Juldain [KB 6] / Migel Garate eta ondorengoak [KB 42].

**MEDIKUAK**

Iñaki Garbizu [KB 18] / Jose Maria eta Bizente Arzelus [KB 48] / Frantzisko Apaolaza [KB 54].

**DENTISTAK**

Jose Maria Zubia [AK 8] / Esther Arabaolaza [AM 2] / M<sup>a</sup> Angeles Mendizabal [AM 2C].

**ABOKATUAK**

Antonio Mokoroa [AK 4] / Jose Migel eta Beatriz Gomendio [KB 59].

**GESTORIAK**

Cortabarria [KB 42]

**LANTEGIAK**

- Banastaginak: Makaleneko maiorista eta tailerreko langileak [RI 3] / Esteban Arriaran, *Txarrasko* [KB 44] / Auzotxo kalean Hilarion Umerez maiorista eta hainbat banastagin etxe desberdinetan.
- Arotzak: Bizente Korkostegi eta semeak [AK 10] / Iñazio Zelaia eta semeak [AK 13].
- Burdina-tailerrak: Simon Arrue eta ondorengoak [AM 2] / Nikolas Etxabe [KB 32] / Domingo Galdos [KB 42].
- Txokolate-fabrikak: Martin Orbea [KB 29] / Zahor [KB 35].
- Eraikuntza: Italde [RI 2].

**ELKARTEAK**

- Gastronomía elkarteak: Arrano [KB 13] / Zubialde [RI 1] / Makalena [RI 3] / Nekazarien elkarteak [AK 10] / Oinarri [KB 35] / Irrintzi [KB 24] / Etxaluze [KB 54] / Kurtze Baltz [MZ 3].
- Kirol elkarteak: Aloña Mendi [AK 20] / Antxintxiketan [AK 32].

• Kultura elkarteak: Oñatz gazte-elkartea [KB 35] / Ganbara [KB 54]

• Alderdi politikoak: EAJ (Batzokia) [KB 9] / EH-Bildu [KB 9] / HB [KB 13].

• Sindikatuak: ELA [AK 13] / LAB [AK 32].

**ERA ASKOTAKO PERTSONAIK**

Kale arte hauetako etxe eta eraikuntzetan jaiotako, bizi edo jardundako pertsonaiei gagozkiela, berriz, are zailagoa egiten zaigu, leku eta asti faltaz, ganorazko argibideak gauzatzea. Beraz, ezinbestean, aipamen labur eta ondo osatu gabeak eman beharko dizkizuegu oraingoz. Baten batzuk aipatu ditugu, jada, aurreko ataletan.

**Elizgizonak**

Rodrigo Mercado Zuazola eta Lorentzo Otadui Abendaño, Avilako gotzainak bata zein bestea; Azisklo Xabier Agirre, Migel Mariano Plaza, Felix Gerriko eta Ladislao Sagastizabal, San Migel parrokiako erretoreak; Jose Maria Agirrebaltzategi, sermolari ospetsua eta protokoloetako artxibozain.

**Musikariak**

Txistularien artean nabarmentzen dira, Demetrio Iriarte aita eta honen bi seme, Demetrio eta Higinio; baita Agustin Zarketa ere. Joxe Azpiazu ospe handiko gitarista bilakatu zen Europa osoan; halaber bere alaba Lupe. Martin Iñurretegi, *Martiñola*, berriz, dultzaina-jole ezaguna izan zen urte askoan.

**Alkate, politikari eta beste**

Azken mendeetan alkate ospetsuak izan ziren Kasimiro Gerriko, Esteban Gomendio, Santos Etxeberria, Reyes Korkostegi edota Joxe Mari Leturia. Era berean, politika-munduan azpimarratzekoak dira arrazoi eta alderdi desberdinetatik, Jose Leon eta Daniel Mugartza, aitona-bilobak; Jose Migel Gomendio eta Anjel Iturmendi, besteak beste.

**Kirolariak**

Joxe Mari Arralde, Kornelio Oleaga eta Manolo Arregi pelotari onak izan ziren eskuz, eta Isasa anaiak puntista gisa; Pio Ituarte txirrindulari ez ezik, lasterkari eta boxeolari ere izan genuen; Juanito Ibarro eta Antonio Leturia eskiatzaile trebeak genituen eta Reyes Korkostegi espeleologo oñatiarren aitzindari...

**Eta gainera...**

Aipagarriak dira, jakina, Naparreneko Margarita eta Rosendo Iturmendi; *Memorias de aquel Oñati* liburua utzi zigun Juanito Zubia; Inazio Egaña eta Karlos Moia enpresa-gizonak; Anjel Iriarte, *Panpott*, txistulari eta barberoa; edota Etxaluzeko Maria Irizar, Oñatin kale-izena daukan emakume bakarra, eta abar, eta abar.





# ITTEN BAT

(\* Itten: arrastua, pistia

## TXISTE KONTARI

### Txitxarrua eta berdela

Uda parteko egun baten Oñatiko lagun kuadrilla bat alkartu eta, Ondarru aldera fan ei zan kostako jiria egitteko asmuagaz. Aillegau eta, portuan bueltaka hasi ei ziran, hango girua ikusiz eta hango usaiña hartuaz, eta halaxe ebiltzela, ikusi euen peskia saltzen andra bat eta...

—Txitxarrua zenbatian dakozu, ba?

—Bost euruan kilua. Oraintxe bertan itsasotik ekarritakua. Fresko-freskua!

—Dedio, bost euro kiluak! Zer xakok, ba, txitxarro batek buztana kendu ezkerok? ikaratuta kuadrillako batek bestiar.

Eta arrain-saltzaillia subia baiño bizixago, harro-usaiña kentzeko, zapla erantzun:

—Hik be zer dakok, ba, buztana kendu ezkerok?



## BILLATU BERBA HONEIN SINONIMUAK

- |              |  |
|--------------|--|
| 1. Belundu   | A. Kimatu                                |
| 2. Etzin     | B. 1. Ebaki, zatitu / 2. Zaildu, gogortu |
| 3. Iñausi    | C. Bakandu, mehaztu                      |
| 4. Kurtiu    | D. Ilundu (arropa, irina)                |
| 5. Soilddu   | E. Ireki                                 |
| 6. Mihaztu   | F. Mailatu, zehetu                       |
| 7. Ebagi     | G. Etzan                                 |
| 8. Eregi     | H. Adarrak ebagi                         |
| 9. Maspilddu | I. Hazia zabaldu edo sartu               |
| 10. Erein    | J. Ebaki                                 |

## EUSKERAZ EGOGI

### \*agurtzen naiz, \*agurrak, \*agur bat

Mezu, ohar, gutun eta abarretan ezta zuzena despeditteko **\*agurtzen naiz**, **\*agurrak** edo **\*agur bat** formulak ebaltia. Enderazko *me despido*, *saludos* eta *un saludo* esapidiaren kalko hutsak dira, hurrenez hurren.

Hona hemen, adibide zuzen batzuk "agur" berban oiñarrittuak:

- **Esker milla eta agur**
- **Begirunez, agur**
- **Agur, lagun**
- **Agur, adiskide**
- **Besterik barik, agur bero bat**
- **Adeitasunez agurketan zaut**
- **Jaso egizu nere agurra**

Formula gehixago be badagoz, jakíña: **besarkada bat**, **ez adiorik**, **muxu haundi bat**, **laister arte**, **hurrengo arte**, **gura dozun arte**... Hainbat kontu aintzat hartuta aukeratuko dogu formula edota konbinaziño bat edo beste: zein dan mezuaren gaixa edo mamiña, zer eragin gura dogun hartzaillarengan agur horrekin, zer konfiantza dogun berarekin, etab.

Agozko berbetan, ostera, oso normala da **saludau** eta **despediu** aditzak ebaltia, bakoitza bere aditz sistemarekin: *ulixa saludau neben* (forma neutra) edo *ulixa saludau ñuan/ñonan* (hitanua). Baiña, *semiarekin despediu nintzan* edo *semia despediu neben*.



## Emakume kaletarrak ezkondu aurreko despedidan

**Z**erk batu ete eben emakume-pillatxo hau? Zeintzuk diran ezagutu ondoren, gure ustez, euren arteko hartu-emuna argittu ahal izan dogu. Etziran danak kuadrilla bateko lagunak, edota talde eta idea berekuak, ezta edade bardiñekuak be. Alkar-ketako arrazoia ezkondu aurreko despedida bat izan zan. Nobixia erdiko illaran jarritta agiri dan hirugarrena dogu, **Maritxu Alberdi Oleaga**, orduan Kale Zaharrekoa; 1935ko otsaillaren 27xan Portaleku aldeko Auzabarriko **Joxe Altube Igartuarekin** ezkondu zan. Fotografixia lehentxuago ataratakua izango da.

Argazkiko batzuk **lagunak** edo **auzokuak** ziran, Kale Zaharrekuak batez be, baiña beste batzuk **familixakuak**: andrageixaren ahizpa, lehengusu edo senidiak, baitta nobixuaren arrebak be. Orain aitzakixa gutxi bihar izaten dogu bazkari, afari edo jaitxoren bat asmaitteko. Baiña sasue batian etziran hain sarri egitten, eta **estimaziño haundixa** **eukitten euen halako juntadizo eta ospakizunak**. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue kale aldeko emakumion izenak eta nundik norakuak:

**Zutik goixan:** **Maria Garai**, Kale Zaharrekoa, **Milagros Letamendi** alabatxua besuetan dakola; **Kasimira Kortabarria**, Kale Zaharreko **Bonbarduena**; **Maria Maiztegi**, Jaime Agirrerekin ezkonduko zana; honen aurrian **Martina Igartua**, San Antue kaleko **Frantsesiena**; **Maria Anjeles Ugarte**, plazako **Estanku Zaharrekoa**; **Dominga Arrazola**, **Kurtiderixakua**; X. X.; **Blankita Arana**, **Porrunekua**; atzian, **Dorotea Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; honen aurrian **Maritxu Urtaza**, Kale Barriko **Kirriñena**; atzian **Benita Ugarte**, San Antue kaleko **Gaiñenekua**; honen aurrian, **Maria Anjeles Madinazkoitia**, Dorotearen ahizpia; **Joxepa Egaña**, Ximon Artzaren andria, Goribar auzokua; **Maria Jesus Baylo** [?], **Kuartelekua**; eta **Jesusa Elorza**, joskiña.

**Erdixan jarritta:** **Maritxu Ibarrondo**, Kale Barrikua; **Elisa Alberdi**, Kale Zaharrekoa; **Maritxu Alberdi**, nobixia eta aurrekuaren ahizpia; **Jesusa Altube**, **Auzabarrikua**; eta **Karmen Altube**, Jesusaren ahizpia.

**Lurrian jarritta:** **Sabina Ibarrondo**, Kale Barrikua; **Ines Urzelai**, Kale Zaharrekoa; **Ines Ibarrondo**, Maritxu eta Sabinaren ahizpia; eta **Maritxu Artza**, **Joxepa Egañaren** alabia.

J. E.

Fotografixia Artza familixiak gordetakua da eta guri Xabier Zelaiaren bittartez heldu xaku. Argibidiak Milagros Madinazkoitia, Rexu Letamendi, Jabi Altube, Mari Karmen Madina, Ana Mari Igartua, Mari Jose Ibarrondo eta Karlos de los Santosek samurtu eta osotu doskue. Milla esker danoiri!



ZIGARROLA 1  
TEL.: 943 71 10 12  
**ARRASATE**



**centro hogar MUEBLES**

ZERKAOSTETA 3  
TEL.: 943 71 10 11  
**ARRASATE**



ZIGARROLA 1  
TEL.: 943 79 15 03  
**ARRASATE**



**GUSTU GUZTIETARAKO BARNE APAINKETAK!**